

2024ko UZTAILAREN 26ko KANBOKO HERRIKO KONTSEILUAREN BILKURAREN AKTA SINTETIKOA

Bertan zirenak : Christian Devèze, auzapeza, Eliane Aizpuru, Jean-Noël Magis, Yolande Huguenard, Didier Irastorza, Marie Aristizabal, Robert Poulou, Christiane Hargain-Despéries, axuantak, Véronique Cadepond-Larronde, Corinne Othatceguy (20:00ak arte), Jean-Paul Eyherachar, Nicole Amestoy, Jean-Jacques Lassus, Isabelle Ayerbe, Maud Gastigard, Roger Barbier, Bernadette Remeau, Carmen Gonzalez, Peio Etxeleku, Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Amaia Beyrie, Alain Boscq, Xabier Heguy, hautetsiak.

Bertaratu ez zirenak edo egon ezin zutenak: Vincent Goytino, axuanta; Corinne Othatceguy (20:00etatik aitzina), Sébastien Carre, Jean-François Lacosta, Jean-Paul Alaman, hautetsiak.

Ahalordez: Vincent Goytino jaunak Jean-Jacques Lassus jaunari; Corinne Othatceguy andereak Yolande Huguenard andereari (20.00etatik aitzina); Sébastien Carre jaunak Christian Devèze jaunari; Jean-François Lacosta jaunak Peio Etxeleku jaunari; Jean-Paul Alaman jaunak Nathalie Aïçaguerre andereari.

– Bilkurako idazkaria izendatzea.

Bertaratutakoek aho batez, Jean-Paul Eyherachar jauna hautatu dute bilkurako idazkari.

20:00ak arte:

Hautetsi kopurua.....	29
Parte hartu duten hautetsien kopurua.....	25
Ahalordezko kopurua.....	4
Hor ez zirenen kopurua.....	4

20:00etatik aitzina:

Hautetsi kopurua.....	29
Parte hartu duten hautetsien kopurua.....	24
Ahalordezko kopurua.....	5
Hor ez zirenen kopurua.....	5

– Gai ordena:

001 – 2024ko martxoaren 20ko, apirilaren 10eko eta apirilaren 15eko Herriko Kontseiluen aktak onartzea.	2
002 – Etxetoa karrika: lursailaren erosketa eta jabego publikora transferentzia – errepideen eraikuntzaren erregulartzea.	4
003 – Delbarre karrika: lursailak jabego publikora sartzea inkesta publikoaren ondotik.....	5

004 – Bordart etorbidea/Dr Chatard karrika/A. Neubourg hiribidea: Prefetaren esku uztea lursailak jabego publikoan sartzeko zuzenki.	7
005 – Bordart etorbidea: Durruty partzuergoari lursaila erostea.	8
006 – Tokiko Hirigintza Planaren (THP) lehen aldaketa: ikerketa publikoa egin eta gero onarpena..	9
007 – Albeniz plazabaratzean itzulgune proiektua: Departamenduko Kontseiluarekin obren jabekidetzako hitzarmena.....	15
008 – Eskolako korralea egokitzea: hitzarmena Arkitektura, Hirigintza eta Ingurumenaren Kontseiluarekin (AHIK)	20
009 – Energia berriztagarrien azeleratze zonaldeak (ZAEEnR): hitzartzearen bilana eta ZAEEnR-en onartzea.	22
010 – Goi-mailako irakaskuntzako herriko dirulaguntza 2023-2024 urterako.	24
011 – Eskola-garraioa: hitzarmena Ipar Euskal Herri-Aturriko Mugikortasunen Sindikatuarekin. ..	24
012 – Altxor publikoa: finantza publikoen zentroko bulegoen alokatze kontratuari lengo gehigarria.	25
013-A – Berreskuratze administratiboa izan duten hilobien birsalmenta prezioa finkatzea.	26
013-B – Hilobi berrien salmenta prezioa finkatzea.	27
014 – Hirigune Elkargoa: 2024-2029 aitzinamenduzko kontratua.	28
015 – Hirigune Elkargoa: herriko Euskara zerbitzua garatzeko partaidetza hitzarmena.	29
016 – Mediateka: bildumen sailkatze eta garbiketa.	30
017-A – Langileak: Bide Publikoaren Zaindari (ASVP) lanpostu ez-iraunkorra sortzea.....	31
017-B – Langileak: harrera eta erreserbatze-agente lanpostu ez-iraunkorra sortzea.	32
017-C – Langileak: Ama-eskoletan Berezitu (Lurralde) Agentea (AB(L)A) lanpostu iraunkor bat sortzea.	32
017-D – Langileak: adingabeen harrera kolektiboaren arduradun lanpostu iraunkor bat sortzea.	34
018 – Langileak: Kudeaketa Zentroa – Auzibideen arloan aholkularitza juridikoa erabiltzea.	35
019 – Pirinio Atlantikoetako Tokiko Sozietate Publikoa (SPL): 2023 urteko txostenaren aurkezpena.	36
020 – L’Aiglon zinema: 2023ko ustiapen txostenaren aurkezpena.	37
021 – HeBHeS Txakurrak: 2023ko jardueren txostenaren aurkezpena.	38
022 – Hirigune Elkargoa: 2023ko jardueren txostenaren aurkezpena.	38

Peio Etxelekuk, azken udal aldizkarian ageri den gehiengoaren idatziari erantzuteko eskubidea erabiltzeko galdera egin dio auzapezari. Legeak erantzuteko eskubide hori euskarri berera mugatzen duen arren, auzapezak Herriko Kontseiluaren bilkuraren bukaeran hitz egiteko aukera ematea erabaki du, giroa baretzeko eta demokrazia errespetatzeko asmoz

001 – 2024ko martxoaren 20ko, apirilaren 10eko eta apirilaren 15eko Herriko Kontseiluen aktak onartzea.

EZTABAIBA:

Herriko Kontseiluak 2024ko martxoaren 20ko, apirilaren 10eko eta apirilaren 15eko bilkuretako aktak onetsi beharko ditu.

Herriko Kontseiluak, horri buruz eztabaidatu ondotik, honako hau erabaki du aho batez:

ONESTEN DITU

2024ko martxoaren 20ko, apirilaren 10eko eta apirilaren 15eko Herriko Kontseiluen bilkuretako aktak.

PARTE HARTZEAK

Auzapezak adierazi du Nahi Dugu Herria-k planteatutako galderetako bat Argitxu Hiriart-Urrutyk martxoaren 20ko Herriko Kontseiluan Kanboko autobus geldilekuen kopuruari buruzko egin duen galdera bati dagokiola. Biltzarrari jakinarazi dio 13 geldileku badirela zehazki eta bilkuraren bukaeran dokumentu zehatz bat banatuko dutela.

Auzapezaren erabakiak jakinaraztea.

Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L. 2122-22 eta L.2122-23 artikuluekin bat, eta Herriko Kontseiluak 2020ko ekainaren 11n egindako eztabaidarekin bat, honako hau jakinarazten da:

- 2024ko martxoaren 23tik 2024ko uztailaren 5era hilerrian hilobi kontzesioak emateari eta berreskuratzeari buruzko erabakiak
 - 15 urteko kontzesioen erosketa (lur gorrian): **1**
 - 30 urteko kontzesioen erosketa (+ hilobia): **1**
 - 30 urteko kontzesioen erosketa (+ errauts kutxa hilobia): **2**
 - 15 urteko lurreko kontzesioak berritzea: **1**
 - 30 urteko kontzesioak berritzea (hilobiak): **8**
- 2024ko martxoaren 22ko D-2024-007 erabakia: Euskal Herria-Aturri Hirigune Elkargoari dirulaguntza eskatzea segurtasuna hobetzeko (su-gorri mikrorregulatuak hiru bidegurutzetan). Galdera Laguntza Funtzaren parte da (udalaren aurrekontu finkoa) 30.000 eurokoa, hau da, 162.058.70 euroko inbertsio-gastu osoaren % 18,51a
- 2024ko ekainaren 5eko D-2024-008 erabakia: KAP Kudeaketarako Agentzia Publikoko Ondare eta Arkitekturako Zerbitzu Interkomunalarekin hastapenean izenpetutako hitzarmenari gehigarri bat izenpetzea, zeinean pilota-klubaren lokalak egiteko eta handitzeko proiektua laguntzeko aurreikusitako lan egun-erdien kopurua beherantz berrikusten den.
- 2024ko ekainaren 19ko D-2024-009 erabakia: 2024ko ekainaren 22tik aitzina Kanboko diruzaintzan epe batetarako kontu bat irekitzea, 600.500 €-tako gordailu-zenbatekoarekin, 6 hilabeteko eperako
- 2024ko ekainaren 21eko D-2024-009-B erabakia: 2024ko ekainaren 22tik aitzina Kanboko diruzaintzan epe batetarako kontu bat irekitzea, 600.000 €-tako gordailu-zenbatekoarekin, 6 hilabeteko eperako. (D-2024-009 zenbakidun erabakia baliogabetu eta ordezkutzen du)

PARTE HARTZEAK

Auzapezak adierazi du Nahi Dugun Herriak, Peio Etxelekuk eta Jean-François Lacostek hainbat galdera egin zituztela, baina epez kanpo iritsi zirela; beraz, ez diela zuzenean erantzunen. Hala ere, puntu batzuk eztabaidaren harira aipatuko direla zehaztu du.

Argitxu Hiriart-Urrutyk 600.000 €-tako epe batetarako inbestizamenduari buruz egindako galderari erantzun dio (D-2024-009-B erabakia). Bere hitzetan, 600.000 €-tako inbestizamendua ez da egungo

proiektu bati lotua, baina Fagalde etxea erosteak babesten duela oraindik; hastapenean 1,2 milioi euroko balioan estimatua zena eta Euskal Lur-funtsen Tokiko Erakunde Publikoak (ELTEP) esku hartu eta gero 1,1 milioitan berrikusi zena. Erosketa hori egiteko, herriak mailegu bat egin behar izan zuen. Bi inbestizamendu egin ziren, 700.000 € eta 400.000 €-takoak, mugaegun desberdinetakoak. Lehen inbestizamendua bukatzeaz zegoenez, zenbateko horren heineko inbestizamendua berritzea erabaki zen, ELTEPe emandako zenbatekoaren arabera herriak zorra kitatzeko ordaindu behar duen lehen urteko urte saria kontutan hartuta, zehazki 99.500 €-koa. Hori dela-eta, 600.500 €-tako (700.000 € - 99.500 €) epe batetarako inbestizamendua galdegin zen, baina diruzaintzak ez zuen onartu, 600.000 €-tako zenbateko biribildua behar zelako. Inbestizamendu horren helburua Fagalde ontasunaren etorkizuneko erosketa bermatzea dela zehaztu du .

Fagalde etxearen inguruko proiektuari buruzko galderari ere erantzun dio auzapezak. Gaur egun ELTEPe egindako diagnostikoaren emaitzaren zain gaude, sartzerako etortzekoa omen da eta horrekin beharrezko lanen zamaren balioa estimatzen ahalko da. Oraingoz ez da eraikinaren xedeari buruzko erabakirik hartu. Gainera, alokatzaile bat bertan bizi da eta ordezeko bizitokia bilatzen ari dira.

Tabletei dagokienez, bilkuraren bukaeran banatuko direla aipatu du auzapezak, Herriko Kontseiluaren datorren bilkuratik aitzina erabiltzeko.

002 – Etxetoa karrika: lursailaren erosketa eta jabego publikora transferentzia – errepideen eraikuntzaren erregulartzea.

EZTABAIDA:

Magisek, axuantak, batzarrari azaldu dio orain dela urte batzuk herriak errepidea egokitzeko lanak egin zituela Etxetoa karrikan.

Hala ere, eskualdatzea ez zen dokumentu publiko batean bildu. AX 235 lursaila, 104 m²-koa, Etxetoa karrikaren zati bat da eta lehengo jabearena da beti, hau da, gaur egun zendua den DARMAILLACQ Bernard jaunarena.

Lursailaren mutur hori errepidearen zati da eta egoera erregulartzea eta jabego publikora transferitzea komeni da.

Bizkitartean, oinordetzan lursail hori ahantzia izan zen.

Kontutan harturik DARMAILLACQ jaunaren ondokoek lursail hori euro sinbolikoaren truke eskualdatzea onartzen dutela,

Kontutan harturik, baldintza horietan, ondoriotasun-gastuak (650 €) ondokoen gain uztea zaila dela,

Magisek lursail hori ondoriotasun-gastuen prezioan erostea proposatu du, hau da, 650 €-tan.

Magisen azalpena entzun eta horri buruz eztabaidatu eta gero, Herriko Kontseiluak, aho batez:

ERABAKI DU kadastran dagoen AX ataleko 235. lursaila, 104 m²-koa, DARMAILLACQ partzuerrei 650 €-tan erostea.

ERABAKI DU lursail hau herri jabegora eskualdatzea.

ZEHAZTU DU gastu guztiak (aktak, ...) herriaren kontura izanen direla,

AGINTZEN DIO auzapezari eragiketa hau egiteko behar diren urrats guztiak egin ditzala.

PARTE HARTZEAK

Argitxu Hiriart-Urrutyk galdegin du ea herri ondarean sartu behar diren lur ondasunen zerrenda zehatz bat osatzea posible litzatekeen, eztabaidagai hori erregularki itzultzen baita, eta bitxia iruditzen zaiola.

Jean-Noël Magisek azaldu duenez, ikerketen eta errepideetako eraikuntza-lanen aitzinamenduen arabera integratzen dira elementuak.

Auzapezak gaineratu du notarioari sistematikoki beharrezko egokitzapenak egiteko galdegiten zaiola. Hala ere, azpimarratu du lan horiek notarioen bulegoari guti ordaintzen zaizkiola, eta horrek esplika dezakeela egoera.

Zerbitzu Teknikoen zuzendariak zehaztu duenez, hogeita hamar bat dosiera abian daude, de Rezola notarioaren ardurapean, eta horietatik 20 bat kasik hogeita hamar urtez. Gaur egun, kasu korapilatsu batzuetan, benetako dokumentuak behar dira edo notarioengana jotzea nahitaezkoa da, oinordetza honetan gertatzen den bezala.

Peio Etxelekuk arazo juridiko bat planteatu du: auzapezak notariotzako egintzak egin ditzakeen galdegin du. Hala nola eskualdaketak, kasu horietan notarioarengandik pasatu behar izan gabe.

Zerbitzu Teknikoen zuzendariak administrazio egintzek, hala nola Udalaren eta saltzailearen arteko eskualdaketek, ez dutela notariorik behar erantzun dio. Administrazio-egintza horiek zuzenean hipoteka-zerbitzuetara bidaltzen dira, trata ditzaten.

Peio Etxelekuk galdegin du ea zergatik dosiera batzuk notarioarengana bidali behar diren, beste batzuk, aldiz, zuzenean administrazio-egintzen bidez tratatu daitezkeen.

Zerbitzu Teknikoen zuzendariak azaldu du dosiera batzuk, bereziki oinordetza-gastuak dakartzatenek, notario baten lana galdegiten dutela, auzapezak ezin dituelako zuzenean kitatu. Aldiz, administrazio-egintza sinpleek, hala nola euro sinbolikoaren truke ondorengotza-gasturik gabe egindako eskualdaketek, ez dutela notario baten esku-hartzerik behar. Notarioek ez dituzte dosiera korapilatsuak irabazi ttipi samarrengatik aise lantzen, eta horrek azal dezake kasu horien tratamenduaren moteltasuna.

003 – Delbarre karrika: lursailak jabego publikora sartzea inkesta publikoaren ondotik.

EZTABAIDA:

Magisek, axuantak, batzarrari azaldu dio, 2023ko abenduaren 12ko eztabaidaren ondorioz, Delbarre eta Txokolatagia karriken zati bat osatzen duten lurzatiak zuzenean jabego publikoan

sartzeko prozedura bat aintzat hartu eta OTAL Liliane, Ikertzaileari inkesta publikoa egiteko agindu diola 2024ko otsailaren 20an izendatua.

Kontutan izanik ez dela Proiektuaren kontra erreklamaziorik aurkeztu;

Kontutan izanik ikertzailearen aldeko irizpena;

Kontutan izanik legeak agindutako formalitate guztiak bete direla;

Kontutan harturik sartutako lursailak aipatutako bideen zati direla eta udalerriak bide horiek mantentzen dituela;

Arrazoi hauengatik, Magisen azalpena entzun eta eztabaidatu ondotik, Herriko Kontseiluak aho batez:

ONARTZEN DU Delbarre eta Txokolategia karriken parte diren lursailak jabego publikoan sartzea, hemen erantsia den lursailen plana segituz;

Lursaila	Azalera
AY 102	365 m ²
AY 175	18 m ²

BAIMENA EMATEN DIO auzapezari eragiketa hori egiteko behar diren urrats eta betebeharrak guztiak egin eta izenpe ditzan; egintza dagokion administrazio-forman ezar dezan; eta herriko errepideen plana eta sailkapen-taula egunera ditzan.

PARTE HARTZEAK

Philippe Bacardatzek adierazi duenez, Fagalde operaziorako mailegua erosketa aitzin lortu da; kasu honetan, aldez, lehen pribatua zen lursail batean lanak hasi dira lursaila ofizialki eskuratu aitzin.

Jean-Noël Magisek zehaztu du Delbarrereri buruzko dosiera errepideko lanei buruzkoa dela

Philippe Bacardatzek zehaztu du, zaharren egoitzaren aitzinean, lursailaren zati bat pribatua zela lanak hasi zirenean.

Zerbitzu Teknikoen zuzendariak azaldu duenez, zaharren egoitzaren aitzineko lur eremua pribatua izan arren, jabea hil aitzin zirkulaziora irekitzeko akordioak lortu zituzten. Beraz, lanak baimen horretan oinarriturik hasi ziren. Arazoa jabegoaren izen-aldaketa zela zehaztu du, notarioak egin ez zuena.

Auzapezak erran du ez duela, etorkizunean EPFL-i eta mailegua galdegiten duen eraikin bat (Fagalde) erostearen eta errepideko lan sinpleak finantzatzearen artean Bacardatzek egiten duen paralelotasuna ulertzen.

Philippe Bacardatzek desberdintasuna argitu du bi ikuspegi daudela azalduz: batetik, lanak egin aitzinetik ondasuna erostea eta, bestetik, lurra erosi aitzinetik lanak egitea.

Auzapezak azpimarratu du desberdintasun handia dagoela errepideen antolamenduarekin lotutako erosketa eta finantzaketa pausoei eta berritzeko xedez EPFL-i eraikin bat erostearekin lotutako

pausoen artean. Behar diren zenbatekoek ez dute zer ikustekorik eta ainitz alda daitezke, kasu honetan 1,2 milioi euroko balioa duen ondasun bat erostearen edo errepede bat berritzearen arabera.

Philippe Bacardatzek espero duen gauza bakarra da egun batez jabe batek bere lursaila saltzeari uko ez egitea.

Jean-Noël Magisek azaldu duenez, ohikoa da lanak hasi aitzin salmenta konpromiso bat ukatea, erosketa prozedurak segitzen duen bitartean lanak hasteko. Azpimarratu du, maiz, salmenta konpromiso batekin ere, erosketa prozedura berehala ez osatzea litekeena dela, eta horrek erregulartze fase bat galdegiten duela. Behin eta berriz azpimarratzen du obrak jabearen adostasuna lortzen bada eta salmenta konpromisoa izenpetua bada hasten direla.

Philippe Bacardatzek prozedurak bukatu ez izana deitoratu du, baita pausoak osatuak ez izatea ere.

Jean-Noël Magisek erantzun du oraingo asmoa prozedurak burutzea dela. Aitortzen du iraganean hainbat eragiketa erregulartzeko bidean daudela. Ezinezkoa da dena aldi berean erregulartzea, izatez, pixkanaka egiten direla.

004 – Bordart etorbidea/Dr Chatard karrika/A. Neubourg hiribidea: Prefetaren esku uztea lursailak jabego publikoan sartzeko zuzenki.

EZTABAIDA:

Magis jaunak, axuantak, batzarrari oroitarazi dio Bordart etorbidea, Anne de Neubourg hiribidea eta Dr. Chatard karrikako zati batzuk jabe pribatu batenak direla. AV 200 (Anne de Neubourg hiribidea eta Doctor Chatard karrika) eta AV 198 (Bordart etorbidea) lursailak (Higiezin Sozietate Zibila) SCI BERGERAC-en jabetzakoak direla beti.

Oroitzeko, 1994ko uztailaren 26an Herriko Kontseiluak Udala eta BERGERAC SCI-aren arteko hitzarmen bat izenpetzeko oniritzia eman zuen. SCI-ak, Bordart etorbidea eta Anne De Neubourg hiribidea zabaltzeko beharrezkoak ziren lurak udalari dohainik uzteko eta bi errepede hauen arteko lotura (gaur egun Dr. Chatard karrika) eraikitze konpromisoa hartu zuen.

Udalak hainbat lan egiteko konpromisoa hartu zuen. BERGERAC SCI-ak beharrezko materiala hornitu zuen. Emaleak Anne de Neubourg bidearen bost aparkaleku mantentzeko asmoa zuen.

Hitzarmenak zehazten zuenez, “hitzarmen hau baliozkoa izanen da baldin eta Bergerac SCI-ak eskualdaketaren benetako dokumentua erregulartzen baldin badu”, eta hori ez da sekulan gertatu.

Hala ere, 1992tik bide hori mantendu eta bidearen jabe gisa ekin du udalak, bereziki saneamendu eta euri uren sare publikoak eginez.

Beraz, 2023ko abenduaren 12ko eztabaidaren ondorioz, Herriko Kontseiluak egoera hori erregulartzea erabaki zuen eta Hirigintza Kodearen L. 318-3 artikuluan aurreikusia den bezala, sartzeko zuzenean egiteko prozedura aplikatzea, bide hori herriko errepedeen artean sailkatu ahal izateko.

2024ko otsailaren 5eko Herriko Etxearen erabakiz, Kanboko herriak ikerketa publiko bat irekitzea agindu zuen bide-zati horiek jabego publikoan zuzenki sartzeko gero; ikerketa hori 2024ko martxoaren 6tik 21era burutu zen.

Ikerketa horretan, BERGERAC SCI-ko ordezkariak, lursail horien jabeak, kontrako iritzia eman zuten eta dagozkien lursailak ezin direla jabego publikoan sartu eskualdatzea benetako dokumentu bidez egin arte. Aitzinetik 776 m²-en balioaren kontratuzko estimazioa egin eta eskualdatze-prezioari buruzko adostasuna lortu behar zela adierazi zuten.

Ikerketa publikoaren berezko xedea, ordea, zirkulaziorako irekitako bideen jabetza zuzenki eta ordainsaririk gabe jabego publikoan sartzea da. Bide horien mantentze-lanen zama herriarenak bihurtzea.

Dosierra aztertu ondotik, ikertzaileak bere ondorioak aurkeztu zituen eta bidea herriko errepideen artean sailkatzearen aldeko irizpena eman zuen.

Mr. Magisek azaldu du Hirigintza Kodeko L. 318-3 artikulua araberak, hunkitua den jabe batek kontra egin badu, erabaki hori Estatuak departamenduan duen ordezkariaren aginduz hartzen dela, udalak hala galdegin baldin badu.

Herriko Kontseiluari prefetaren esku uzteari buruzko iritzia emateko galdegin dio, bide horien zuzeneko sailkapena egiteko.

Arrazoi hauengatik, Magisen azalpena entzun eta horri buruz eztabaidatu ondotik, Herriko Kontseiluak aho batez:

ONARTZEN DU Hirigintza Kodearen L. 318-3 artikulua araberak, Bordart etorbidea, Anne de Neubourg hiribidea eta Dr. Chatard karrika zuzenki sailkatzeko prefetaren esku uztearen printzipioa.

AGINTZEN DIO auzapezari eragiketa hori egiteko behar diren urrats eta betebeharrak guztiak egin ditzan eta, bereziki, auzia prefetaren esku uztea.

005 – Bordart etorbidea: Durruty partzuergoari lursaila erostea.

EZTABAIDA:

Magis jaunak, axuantak, Herriko Kontseiluari azaldu dio DURRUTY Françoise eta Jean-Philippe partzuergoko kideak, lursail bat, (kadastran AV/305 sekziokoa, 216 m² inguruko azalera duena) herriari uzteko prest direla, Bordart etorbidean ordezkari hesi berri bat ezartzearen truke.

Lursail horrek, Bordart etorbidean, oinezkoentzako bidexka bat egiteko aukera emanen dio udalerriri.

Herriko Kontseiluari gai horren inguruan iritzia emateko galdegin dio.

Magisen azalpena entzun eta horri buruz eztabaidatu ondotik, Herriko Kontseiluak, aho batez:

ERABAKI DU katastran AV/305 sekziokoa den lursaila, 216 m² inguruko azalerakoa eta DURRUTY partzuergoarena erostea udalak 4.500 €-ko balioa duen hesi bat egitearen truke.

ZEHAZTU DU gastu guztiak Udalaren kargu izanen direla.

BAIMENA EMATEN DIO auzapezari eragiketa hau egiteko behar diren urrats guztiak bete ditzan.

PARTE HARTZEAK

Philippe Bacardatzek egungo hesiak 4.500 €-ko balioa ote duen galdegin du.

Jean-Noël Magisek zehaztu du aipatutako balioa lursail osoari dagokiola eta ez hesiari bakarrik.

006 – Tokiko Hirigintza Planaren (THP) lehen aldaketa: ikerketa publikoa egin eta gero onarpena.

Corinne Othatcegyu salatik atera da.

EZTABAIDA:

Magis jaunak, axuantak, Kanboko Herriko Kontseiluari oroitarazi dio Kanboko herriko Hirigintzako Tokiko Plana (THP)) 2019ko otsailaren 2an onartu zela eta 2020ko irailaren 26an eta 2023ko irailaren 30ean lehen aldaketa sinplifikatuaren bidez aldatu zela. 2021eko urriaren 26ko erabakiaren bidez Hirigune Elkargoko lehendakariaren eskutik, Tokiko Hirigintza Planaren lehen aldaketa-prozedura hasi zen. Hirigintza Kodearen L.153-45 artikuluan zehaztutako prozeduraren aplikazio-eremuan THP-ari zuzenketa berriak eransteke.

I. Kanboko THP-aren lehen aldaketaren prozeduraren xedea:

Kanboko Hirigintzako Tokiko Planaren lehen aldaketaren proiektuaren helburua Hirigintza Kodearen L.153-41 artikuluan zehaztutako aldaketa-prozeduraren aplikazio-eremuan sartzen diren erregelamenduzko hainbat aldaketa gauzatzea da. Hona hemen aldaketa nagusiak:

- U zonakatzearen bilakaera bi sektoretan, merkataritza- eta ekipamendu-proiektuak egitea ahalbidetzeko;
- Etxebizitza sozialak ekoizteko arauak aldatzea;
- UCt sektorea UBa bilakaztea, Argia zonaldean etxebizitzak eraiki ahal izateko;
- Leku erreserbatuak sortzea eta ezabatzea;
- Idatzizko araudiak aldaketak eta doiketak egitea;
- Akats materialen zuzenketa.

II.-Proiektuak ingurumenean dituen ondorioak:

Tokiko Hirigintza Planaren aldaketak ez dakarrenez urbanizazioko gune berriak irekitzera eta ez duenez indarrean dagoen agirian daudenak baino eraikitze eskubide gehiago baimentzen, ez da tokiko ikerketarik egitea beharrezkoa. THP-aren aldaketak hirigune eta hirigune bilakatzeko diren zonaldeen arauen bilakaeran eragiten du oroz lehen.

Kanboko THP-aren lehen aldaketa-proiektua Estatu frantsesean eta Elkargoan ingurumena babesteko finkatutako helburuekin bateragarria da:

• *Faunaren eta Floraren Habitategi buruzko Zuzendararen arabera eta komunitatearen intereseko finkatutako ingurumen naturala eta biodibertsitatea babesteko helburuak.*

Aurreikusitako araudi-aldaketek ez die Natura 2000 guneak (Errobi eta Ardanavyko guneak) babesteko helburuei eragiten.

• *Eremu berde eta urdinak babesteko helburuak:*

THP-aren aldaketek ez dute laborantza eta natura eremuen sailkapena zalantzan ezartzen, eta ez dakarte azalera eraikigarriren handitzerik. Gainera, aldaketak identifikatutako sektoreak Errobitik eta Kanbon eremu urdin nagusia osatzen duten ZNIEFF II guneetatik urrun dira.

• *Hezeguneak babesteko helburuak:*

THP-aren lehen aldaketaren zuzendarauk ez die lurraldeko hezeguneei eragiten.

• *Pertsonak eta ondasunak arriskueta babesteko helburuak:*

THP-aren lehen aldaketak ez ditu pertsonak eta ondasunak arrisku handiagoan ezartzen.

• *Naturaguneak, laborantza eta basogintza babesteko helburuak eta lurraldearen kontsumoa mugatzea:*

THP-a aldatzeak ez dakar laborantza edo natura eremuak murriztea, eta ez du urbanizaziorako sektore berririk irekitzen. Eremu aldaketak hiriguneetan sailkatuak diren bereganatzei eragiten die. Etxebizitza sozialak eraikitzen laguntzeko nahia lehenagotik eraikigarri bezala sailkatuak diren eremuan kokatuak diren bereganatzei dagokie, hiriguneen dentsifikazioaren aldera. THP-aren bilakaerak ez du eraginik laborantza eta naturaguneen kontsumoan.

2023ko abenduaren 15eko erabakiaren bidez, Ingurumen Agintaritzak ez du Kanboko Tokiko Hirigintza Planaren lehen aldaketa-prozedura ingurumen-ebaluazioaren arabera baldintzatzen. MRa Region Nouvelle Aquitaine erakundearen webgunean kontsulta daiteke erabaki hori.

III.- Proiektuari buruzko elkartekide publikoen iritzia:

2023ko azaroaren 2tik goiti, elkartekide publikoei aitzinetik Ingurumen Agintaritzari (MRa) aurkeztu zaion dosiera jakinarazi zaie, iritzia eman dezaten. Elkartekide publikoak hauek dira: Prefeta, Suprefeta, Pirinio Atlantikoetako DDTM-ko Zuzendaria, Eskualdeko Kontseiluetako eta Departamenduko Kontseiluko lehendakariak, Ipar Euskal Herriko & Seinatzeko LUKeren sindikatu mistoa, Ipar Euskal Herri - Aturi Mugikortasunen Sindikatu, Euskal Hirigune Elkargoa (Tokiko Bizileku Programa (TBP) eskuduntza dueno), Merkataritza eta Industria Ganbera (MIG), Ofizio eta Ofizialeen Ganbera, Laborantza Ganbera, CDPENAF, INAO et SNCF Réseau, Kanboko auzapeza.

Orotara proiektuari buruzko iritzia bost elkartekide publikok eman zuten:

• 2023ko azaroaren 13an, CNPF-aren aldeko irizpena.

• 2024ko otsailaren 20an, Ipar Euskal Herri - Aturi Mugikortasunen Sindikatuaren erresalburik gabeko irizpena. Alde batetik, modu aktiboen garapen estrategiak Mugikortasun APN batean (Antolaketa eta Programazio Norabideak) integratzeko interesa gogorarazten du (Herri Bizikletako Plana, Etorkizuneko ibilgailuak bideratzeko erreserbatutako kokapena, euskal eta Landesetako RER sarbidea, autokidetza gunea). Bestaldetik, LOM legearen eta aparkatzea, ibilgailu elektrikoaren kargatzeko azpiegiturak eta bizikleten aparkatzeari buruzko *Climat et Résilience* legearen arau berrien integratzeko interesa adierazten du.

- 2023ko abenduaren 7an, Hirigune Elkargoaren erresalburik gabeko irizpena (*TBP* eskumenaren izenean),
- 2024ko otsailaren 26an, Pirinio Atlantikoetako prefetaren irizpena, ohar hauekin:
 - Gizarteko aniztasunaren arauak: Tokiko Hirigintza Planak ezarritako tresnak (gizarteko aniztasunaren arau eta/edo bide zorraz eta/edo erreserbatutako kokapenak) Elkargoari bizilekuen ibilbide guztietara heltzeko aukera ematen diola segurtatzea, Ipar Euskal Herriko TBPa zehaztutakoaren arabera.
 - Aparkatzeari dagokionez, Ipar euskal Herriko Mugikortasun Planak (MP) familien motorizazio-tasaren murrizketa sustatzeko erabili nahi du aparkatzearen gaia. Batez ere garraio publikoa erabiltzeko aukera gehien duten sektoreetan.
- 2024ko otsailaren 1ean, Ipar Euskal Herriko & Seinatzeko LUKeren sindikatu mistoaren Bulegoaren erresalburik gabeko irizpena, gomendio hauekin:
 - Merkataritza hedapenaren eremuan APN bat egitea, funtzio-aniztasuna sustatzeko eta eremu publikoen kalitateari buruzko lan bat egitea, helgarritasuna oinez eta bizikletaz lehenesteko xedearekin.
 - Lau etxebizitza baino gehiagoko operazio bakoitzeko galdegiten den bizitegi sozialen tasa handitzea, bizitegi-ibilbideak errazteko eta tokiko biztanleriaren beharrak betetzeko.
 - Argia sektoreko lursailen akats bat zuzentzea. Dosierak AY180 lursailaren desklasatzea adierazten du eta aldaketa-proiektuak, aldiz, AW145 lursailaren sailkapena aldatu nahi du.

IV- Ikerketa publikoaren garapena eta ondorioak:

2024ko apirilaren 18ko erabakiaren bidez, Hirigune Elkargoko lehendakariak Kanboko Tokiko Hirigintza Planaren lehen aldaketa-proiektuari buruzko ikerketa publikoaren hastapena eta moldeak zehaztu zituen.

Ikerketa publikoa Kanboko Herriko Etxean egin zen 35 egunez, 2024ko Maiatzaren 7tik (asteartea) 2024ko ekainaren 10era (astelehena barne), Michelle BONNET-MEUNIER ikertzailearen eskutik, Paueko Administrazio Epaitegiko presidenteak 2024ko martxoaren 20an izendatu zuena eta hiru permanentzia egin zituen.

Ikerketa bitartean,

- Herritarrek ikerketa publikoaren dosiera kontsultatzeko aukera izan dute, paperezko bertsioan (Kanboko Herriko Etxean kontsultagarria), bertsio desmaterializatuan (Hirigune Elkargoaren webguneetan kontsultagarri) eta eduki honako hau duena:
 - Kanboko THP-aren lehen aldaketaren dosiera, Ingurumen Agintaritza erakundeari (MRAe) eta elkartekide publikoei azterketarako aitzin aurkeztua (ikus gorago aurkezpen laburtua);
 - Ikerketa publikoaren dossier administratiboa, honako eduki hauekin: ikerketaren eta THP-aren lehen aldaketa-proiektuaren aurkezpen-ohar bat; ikerketa publikoak prozeduran duen kokapena; prozedura hasteko erabakia; ikerketa publikoa agintzen duen erabakia; ikerketa publikoaren agiria; elkartekide publikoen iritzia; Ingurumen Agintaritzaren irizpena (MRAe); Ikerketa publikoei eta THP-en aldaketa-prozedurei buruzko arauak; eranskinak;
 - Paperezkoa ikerketa-erregistro bat eta erregistro elektronikoa bat;
- Herritarrek beren oharrak idatziz aurkeztu ahal izan zituzten Kanboko Herriko Etxean eskura zuten papereko erregistroan; ikertzaileari postaz bidali ahal izan zituzten edo erregistro desmaterializatu helgarri eta seguru batean adierazi;

- Gainera, Kanboko Herriko Etxean gune informatiko bat eskuragarri zen. Ikerketaren dosiera eta erregistro desmaterializatuak doan kontsultatzeko.

Ikerketa publikoaren bukaeran, 2024ko uztailaren 5ean, egin zen ikertzailearen txostenetik ondorioztatzen da, besteak beste:

- Proposatutako egokitzapenek ez dutela oposiziorik sortu ez elkartekide publikoen artean (PPA), ezta ikerketa publikoan parte hartu duten pertsonen artean ere,
- Etxebizitza proiektuak egiteko aukera emanen dute, biztanleek errepikatzen duten galdera bati erantzunez. Inkesta publikoaren xede diren aldaketek ekipamendu publiko eta pribatuak egitea ahalbidetzen dute,
- Aldaketa horiei esker, herriarentzat baliosak diren lanak eginen dira, eremu gehigarriak kontsumitu gabe.

2024ko uztailaren 5ean ikertzaileak bere ondorio arrazoituak eta Kanboko THP-aren lehen aldaketa-proiektuari buruzko irizpena aurkeztu zituen, **aldeko irizpena eman zuen**.

V. Ikerketa publikoaren ondotik proiektuari egindako emendakinak:

Kanboko THP-aren lehen aldaketa onartu aitzin, egokia dirudi:

1/ Elkartekide publikoen kontsultaren eta ikerketa publikoaren kari egin diren oharak bideratzea. Zehazki, honako hauek dira:

* Argia sektoreko lursaileko akatsa zuzendu. Dosieran AY180 lurzatia desklasatuko dela agertzen da eta aldaketa-proiektuak, aldiz, AW 145 lursailaren sailkapena aldatzeko asmoa du. Zonifikazioa zentzu honetan aldatuko da THP-aren lehen aldaketa onartzeko.

2/ UB, UC eta 1AU zonaldeen araudiaren ildoan, edozein etxebizitza eraikuntzarako bi aparkalekulekuren beharra mantentzea, azalera sortu ala ez. Araudia zentzu horretan aldatuko da THP-aren lehen aldaketa onartzeko.

Kanboko Tokiko Hirigintza Planaren lehen aldaketa osatzen duten dokumentuei ez zaie beste zuzenketarik eginen. Ikerketa publikoaren kari egindako oharrei eta ikerketa publikoaren dossierari erantsitako irizpenei erantzunez bere memorian kolektibitateak emandako erantzun-elementuak kontutan hartuaz.

VI. Dosierra emendakinekin zuzenduta eta onartzeko prest:

Kanboko THP-aren lehen aldaketa dosierra onartzeko prest da. Ikerketa publikoaren ondorioz bildu diren elkartekide publikoen iritzia, ikerketa publikoaren kari egindako oharak, arrazoitutako ondorioak ikertzailearen iritzia kontutan harturik dosierra emendakinekin zuzendua izan da.

Magisen azalpena entzun eta horri buruz eztabaidatu ondotik, Herriko Kontseiluak aho batez

ONARTU DU Tokiko Hirigintza Plana (THP) aldatzeko lehen prozedura.

ADIERAZI DU Tokiko Hirigintza Planaren lehen aldaketa dosierraren aldeko irizpena.

Abstentzioak: Peio Etxeleku, Jean-François Lacosta, Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Alain, Boscq, Xabier Heguy.

PARTE HARTZEAK

Amaia Beyriek, eraikuntza berri bakoitzeko bizitegi sozialen %50eko tasa mantentzeko aukera zalantzan jarri du; horrek erran nahi du bizitegien erdiak sozialak izanen direla, eta beste erdiak ez sozialak. Tasa hori zergatik ez handitu galdegin du, beste hainbat udalerrik bezala, batez ere Kanboko biztanleen partetik bizitegi sozialen eskari handia kontutan harturik. Bizitegi sozialen mailan dagoen gibelapena murrizten lagun lezakeela azpimarratu du.

Jean-Noël Magisek azaldu du bizitegi sozialen %50eko tasa finkatzea Habitataren Tokiko Plana(PLH) egokitzeko neurria dela. Legeak bizitegi sozialen %25a finkatzen du gutienez. Udalerriak %50a bideratzearekin operazio berri bakoitzeko bizitegi sozialen %25 lortzen du, eta beste %25ak bizitegi sozialen arloan gibelapena murrizten laguntzen du. Tasa horrek hutsuneak betetzeko eta aldi berean legezko baldintzak errespetatzeko aukera ematen duela adierazi du.

Lurraren prezioa, Kanbon handia dena, oztopo handia dela azaldu du. Bizitegi sozialen kasuan, metro karratuaren prezioa 1.700 €-ra mugatzen da, eta eraikuntzaren gastu erreala kopuru hori baino handiagoa da anitzetan. Horrek gizarte proiektuen finantza-oreka zailtzen du.

Gaineratu duenez, sektore pribatuak estaltzen du soberakinezko gastua, eraikuntza gastuek bizitegi sozialetarako metro koadroko 1.700 €-ko gehieneko muga gainditzeak sortutakoa. Beste manera batez errana, lurraren prezioa eta gizarte operazioen gastuen soberakina bizitegi pribatuen proiektuen bidez finantzatzen dira.

Jean-Noël Magisek Hirigune Elkargoak, emaille pribatuek eta emaille sozialek izenpetu berri duten gutun bat aipatu du. Gutunaren arabera, operazio batek bizitegi sozialen %60 ere har dezake eta %40 bizitegi pribatuan utzi. Promotoreek %40 horretatik %20 neurrizko prezioan (moderatuan) eskaintzeko konpromisoa hartu dute. Kanbon metro koadroko 3.800 €-tan finkatua da sabaia. Horrek erran nahi du, prezio librean % 20a bakarrik geldituko litzatekeela operazio defizitarioen gastuak orekatzeko eta horrek salmenta-prezio biziki garestiak ekar litzake, aplikagaitzak.

Bestalde, zehaztu du izenpetutako gutunak %60ra arte igo dezakeela bizitegi sozialen tasa, %50ekoa izan beharrean, eta aldi berean, bizitegi pribatuaren zati batentzat prezio kontrolatuak ezartzen dituela. Gutun hori aurtengo martxoan baliozkotu zuen Hirigune Elkargoak eta udalerriek bizitegi sozialen %50etik gora joateko malgutasuna eskaintzen die, baina operazioak burutzeko konplexuak dira oraindik. Udalerriak, Gutun honen kide egin behar dira hura aplikatzeko.

Amaia Beyriek azpimarratu du Gutun bat konpromiso moral batean oinarritzen dela. Gutunaren eraginkortasunari buruzko zalantzak adierazi ditu, batez ere promotoreak, dirudienek diru galerarik ez dutenek, arauk zorrotz betetzera behartuak ez badira. Haren ustez, politika eraginkor batek betebeharrak argiak eta lotesleak beharko lituzke promotoreen borondate onean fidatzea baino.

Jean-Noël Magisek erantzun du Gutuna promotoreekin gauzatzeko sortu dela, eta promotoreek, noski, etekina nahi dutela. Hala ere, higiezinaren operazioen gastu handiak direla-eta, gaur egun promotore ainitzek zailtasun finantzarioak dituztela onartu du eta horrek proiektu ainitz eragozten dituela.

Helburua PLHren arabera, bizitegi sozialen ehuneko bat mantentzea da eta aldi berean tasa hori gainditzeko entseatzea. Orain arte promotoreekin egindako lanak bizitegi sozialen %30etik gora joan nahi zuen sistematikoki, %50era arte igotzeko eskakizunarekin. Magisek zehaztu duenez, promotoreek arau hori halabeharrez errespetatu dute, nahiz eta batzuek ehuneko tiikiagoa nahiago izan.

Amaia Beyrie ohartu da promotoreen egoera korapilatsuaren bozeramaile egiten dela, eta nabarmendu du Kanboko familia ainitz zailtasunetan direla. Adierazi du prezio garestiek (3.800 eta 5.000 € artean metro koadroko) etxebizitzak lortzea ezinezko egiten duela, Kanbon benetan nork eros dezaken galdegin du. Neurritz kanpoko prezioak direla-eta, tokiko biztanleek etxebizitza beste leku batean xerkatu beharko dutelako kezka adierazi du eta promotoreen zailtasunekiko baino biztanleen zailtasunekiko sentikorrak dela adierazi du.

Jean-Noël Magisek argitu du ez dituela promotoreen interesak defendatzen, alokairu sozialarenak baizik. Bizitegi sozialen eskuragarritasuna bermatzea du helburu, biztanleek etxeak eskura ditzaten, bizitzaileen beharrei erantzunez promotoreen kezkei baino lehenago.

Gogoratu du Nivaldian abiatua den operazioa BRS-en (Elkartasunezko Alokatzeko Egiazkoa) bidez 14 etxebizitza eskuratze sozialean datzala. Salmenta-prezioak ezin du metro koadroko 2.700 € gainditu. Aldi berean, kolektibitateak Nivaldia eraikina 800.000 € inguruko prezioan erosi du. Azpimarratu duenez, etxe berriekin ez bezala, etxebizitzak birgaitzeak gastu gehigarriak dakartza, eta, ondorioz, anitzetan, bukaerako gastua metro koadroko 2.700 € baino handiagoa da.

Jean-Noël Magisek azpimarratu duenez, Nivaldia bezalako operazio sozialean, defizita hainbat laguntzekin konpentsatzen da: Estatuaren 700.000 € funts berdearen kargura, Hirigune Elkargoaren dirulaguntzak eta emaile sozialaren funts propioen % 10a. dirulaguntza horiei esker, diru-sartze apalak dituzten pertsonen etxebizitzak eskura ditzakete, baina lan horiek egitea zaila da oraindik. Komunitateak etxebizitzaren hainbat segmentutan inbertitzen duela, baina operazio bakoitzak finantza-orekaren berezko erronka dituela azpimarratu du.

Argitxu Hiriart-Urrutyk La Lorraine proiektuari buruzko argibideak galdegin ditu. Informazioaren nahasmena aipatu du: badirudi lurraren esleipenean aldaketa bat gertatu dela. Hastapenean, osasun proiektu batetarako zonifikatu zen, bereziki CMPP-arekin, baina badirudi proiektua ez dela zehaztuko, eta lursaila etxebizitzarako berresleitekeela.

Jean-Noël Magisek baieztatu du La Lorraineko lursaila, hastapenean osasun-proiektu batetarako zonifikatu zena, UCe eremu batean dagoela. Eremu horretan etxebizitzak eraikitzeko aukera ere bada. Osasun proiektuak ez dirudienegokiak, lursaila bizitegi klasikoko eragiketei esleia dakieke, eremukoa baimenen arabera.

Argitxu Hiriart-Urrutyk etxebizitzaren proiektuetan bizitegi sozialen ehunekoagatik kezka adierazi du. Badirudi ikerketa publikoaren kari egin zituen oharrek ez direla ikertzailearen txostenean kontutan hartu. Kezka horiek zergatik ez diren azken agirian agertzen galdegin du, herritar batzuen iritzia, berea barne, ez zirela behar bezala aintzat hartu iradokitzen du.

Jean-Noël Magisek azaldu du ikertzailearen txostena Tokiko Hirigintza Plana onartzeko dosierarekin batera eskuragarri izanen dela. Txosten horretan, ikertzaileak udalerriak bizitegi sozialen % 50 hautatzea Habitataren Tokiko Planarekin (PLH) bat datorrela uste du. Zehaztu du, kolektibitateak nahi badu, proiektuaren kudeaketa nagusigo publikora bidera ditzakeela, eta horrek proiektuak bizitegi sozialen %100ean egiteko aukera emanen lukeela, Nivaldiaren kasuan bezala. Hala ere, azpimarratu du ez dela beti bideragarria bizitegi sozialen tasa gorenak (%80 edo %100 adibidez) sistematikoki ezartzea, operazioen oreka finantzarioaren mugengatik.

Argitxu Hiriart-Urrutyk, udalerriak nagusigo publikoko obradun etxebizitza proiektuak egiteko aukera aintzat har dezan proposatu du, La Lorraine proiektuaren kasuan bezala, gune hori bizitegi bilakatuko balitz. Orduan udalak proiektuak bizitegi sozialen %100ean egin zitzakeela iradoki du. Duela 10 urtetik hona udalerriaren posizioa aldatu dela oroitarazi du, bizitegi sozialen %30etik %50era igo dela, baina uste du orain posible eta beharrezkoa dela harago joatea, beste udalerri batzuek egiten duten bezala, bizitegi sozialen %80ra igotzea, batez ere metatu den gibelapena kontutan harturik.

Auzapezak adierazi du udalerriak ez duela sistematikoki bizitegi sozialen %100era igo nahi, nahiz eta puntualki egiten duen, egin izan duen bezala eta berriki Nivaldiaren kasuan gertatu den bezala. Gizarteko aniztasuna zainduz oreka mantentzea ezinbestekoa dela gaineratu du. Zehaztu duenez, udalerria asmo handiagoko helburuetarantz ari bada ere (% 50 edo % 60, adibidez), garrantzitsua da pixkanaka ekitea. Proiektu batzuk bizitegi sozialen %60ekin aztertzen direla azpimarratu du eta helburua orekak atzematea dela, oreka finantzarioak, baina baita eta batez ere oreka sozialak.

Jean-Noël Magisek gaineratu du bizitegi sozialen operazioen arrakasta, hein handi batean, lurraren nagusigoari lotua dela. Jabetza bat biziki prezio apalean kolektibitatearen esku uzten delarik (euro sinboliko baten truke adibidez), operazio sozial bat egitea aise da. Aldiz, lursail pribatuen kasuan, bizitegi sozialen %100 zaila da anitzetan, lurraren prezioak aukera hori ekonomikoki bideraezina egin dezakeelako. Operazio osoki sozialak aztertzeko prest da, baina egungo testuinguruan bideragarriak diren dudakor agertzen da.

Argitxu Hiriart-Urrutyk azpimarratu du Ipar Euskal Herriko biztanleen %80 bizitegi sozialerako hautagarria dela, eta horrek etxebizitza mota horren galdera handia adierazten duela. Gizarteko aniztasunak, kanboar gehienek beharrak kontuan harturik errealitate hori islatu behar duela dio, bizitegi sozialerako eskubidea baitute. Etxebizitza politikan urrunago heltzeko nahia handiagoa izan litekeela iradoki du, behar handi horri hobeki erantzuteko.

Peio Etxelekuk gaineratu du zenbait udalerri, Bidartek adibidez, beren bizitegi sozialen ehunekoa %50etik gora finkatzea erabaki dutela, maiz %60 eta %100 artean. Lurraren prezio garestiagoarekin ere, udalerri horiek etxebizitza operazioetan ehuneko maila horiek lortzen dituztela azpimarratu du. Gainera, azaldu du bizitegi sozialen ehuneko handiagoa inposatzen delarik, promotoreek jabeekin lurraren prezio apalagoak negoziatzera eraman ditzakeela eta horrek espekulazioa murriztu eta proiektuen gastuak kontrolatzen lagun dezakeela.

Jean-Noël Magis-ek funtsezko puntu batzuk azpimarratzen ditu:

Lursailaren Jabearen hertsapena: lurraren jabeak erosketa eskaintzak uka ditzake, baldintzak ez bazaizkio aldekoak iruditzen. Bizitegi sozialen ehuneko gorako baten eskakizunaren parean, jabeak ez saltzea erabaki dezake edo promotore sozialek proposatutako prezioa baino goragokoan saldu.

Lehentasunez erosteko eskubide prozedura: kolektibitate batek lursail bat erosteko lehentasun-eskubidea erabiltzen duelarik, prezioa desjabetze-epaileak finkatzen du. Epaileak merkatuko prezioen eta eskaintzen arabera estimatzen du prezioa. Anitzetan, komunitateak nahi duena baino prezio garestiagoa finka dezake.

Operazioen aldakortasuna: etxebizitzaren operazio bakoitza bakarra da eta emaitzak tokian tokiko berezitasunen arabera alda daitezke. Bidart bezalako herrien esperientziak, bizitegi sozialen ehuneko handiagoak aplikatzea lortzen dutenak, faktore anitzen menpe egon litezke, hala nola lur erosketen historia edo udalerrien finantza gaitasunak.

Finantza-oreka: batzutan udalerriak operazioak orekatzeko gai izan daitezke, dirulaguntzak edo bestelako finantza-laguntzak emanaz. Kanbon, finantza gaitasunak eta oreka metodoak ezberdinak izan litezke, horregatik beste udalerrietako ereduak berregokitzerik gabe aplikatzea zaila izan daiteke.

Argitxu Hiriart-Urrutyk eta Peio Etxelekuk zehaztu dute bizitegi sozialen tasa apalegiak bakarrik arrazoitzen duela beraien abstentzioa eta ez Argia eremua eraikigarri bilakatzeak, hori gauza ona dela uste baitute.

007 – Albeniz plazabaratzean itzulgune proiektua: Departamenduko Kontseiluarekin obren jabekidetzako hitzarmena.

ERABAKIA:

Magis jaunak, axuantak, biltzarrari jakinarazi dio Kanboko herriak Pirinio Atlantikoetako Departamendu Kontseiluarekin Ur onak eta Grancher etorbideen, Anne de Neubourg hiribidea eta Constant Colbert karrikaren bidegurutzean 4 adarreko itzulgune bat egiteko hitzarmena egin nahi duela. Operazioaren prezioa 350 800 € BEZ-a barne:

- Departamenduko Kontseiluaren parte: 110.000, € BEZ-a barne
- Udalerraren parte: 240 800 €, BEZ-a barne

Proiektu honen helburuak hauek dira: istripu iturri bihurtu den bidegurutzean segurtasun neurriak hartu eta herriaren sarreran dagoen plazabaratza nabarmentzea, lekuaren paisaia-apainketa bat proposatuz.

Magisen azalpena entzun eta horri buruz eztabaidatu ondotik, Herriko Kontseiluak, emandako bozken gehiengoaz:

BAIMENA EMATEN DIO auzapezari Departamenduko Kontseiluarekin hitzarmena izenpetu, D10 errepidean, Kanbon, itzulgune bat sortzeko eta eragiketa hau egiteko behar diren urrats guztiak betetzeko.

Kontrako bozkek: Nathalie Aïçaguerre eta Amaia Beyrie.

Abstentzioak: Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Jean-Paul Alaman, Alain Boscq, Xabier Heguy.

PARTE HARTZEAK

Zerbitzu Teknikoen zuzendariak zehaztu du Albeniz plazabaratzeko proiektua bi urtez landu dela, eta Departamenduko Kontseiluaren aldeko irizpena duela, proiektua departamenduko errepide batean delako. Terrazen sartzeari balioztatzea eta hobetzea da datorren pausoa, jabeen bidegurutzearen segurtasuna handitzeko aurkezpene bat egin zaie berriki. Departamentuarekin errepideetako bere araudian oinarritutako finantza-hitzarmena izenpetzeke dago. Bidegurutzearen segurtasuna eta herriko sartzeari balio ematea proiektuaren helburu nagusietakoak dira, baita duela gutxi birgaitu den Albeniz plazabaratzearen balio ematea ere.

Jean-Noël Magisek itzulgune bikoitza aztertzen ari direla azaldu du: EDF postu baten inguruan itzulgune ttipi bat eta itzulgune handi zabalagoarekin. Itzulgune handiaren goialdea beharbada ez dela planoan ikusten, baina zirkulazioa horrela antolatuko dela azpimarratu du.

Zerbitzu Teknikoen zuzendariak erantsi du, Ur onetatik etortzean Terrazetara sartzeko Etxe Urdinaren aitzinean (Laurent Rodriguez hotel ohia) itzuli behar dela. Bide bakarra dela zehaztu du, ateratzean stop bat duena, Terrazetara jausteko edo Grancher-era edo joateko. Sartze osoa birmoldatu dute. Departamenduaren errepidean itzultzea ezinezkoa zen eta zati hori ateratzeko bakarrik, sartzen utzi gabe, izan dadin behin eta berriz erran dute.

Philippe Bacardatzek noranzko bakarrari buruzko argibide bat galdegin du, igotzean bide beretik jaustea ezinezkoa izanen dela zehaztu du.

Zerbitzu Teknikoen zuzendariak erantzun du hiri barnetik etortzean jausten den bidea har daitekeela. AIEC-eko stoparen eta Terrazen ateratzearen arteko zati jakin bat da noranzko bakarrekoa; gaineratekoak, aldiz, ez dira hala.

Amaia Beyriek galdegin du ea Ur onen itzulgunerantz jausten den errepide zatia noranzko bikoitzekoa izanen den eta noranzko bakarrekoa izan dadin aspaldiko galdera badela azpimarratu du.

Nathalie Aïçaguerrek bide hori "herriko sartzetza" hartzeko ideari buruzko zalantzak ditu. Hastapenean, beheko itzulgunea zirkulazioa desbideratzeko, toki horretako zirkulazioa arintzeko eta hiri barnera beste bide batetik sartzeko pentsatua zela oroitarazi du. Behealdean norabide debekatu bat ezartzea logikoagoa litzatekeela iradoki du, ibilgailuak itzuli osoa egitera behartuz. AIECen eta Albeniz plazabaratzearen aitzinean aparkatzeko tokiak galtzeak ere kezkatzen du. Errepidea norabide bakarrekoa balitz, segurtasuna berez hobetuko zela, oraingo ateratzea arriskutsua baita, batez ere Kanbo Beheretik etortzen direnentzat; ikuspena mugatua da eta istripu gehienak han gertatzen dira.

Jean-Noël Magisek Terrazetako ateratzeak segurtasun arazo bat dakarrela erantzun du, Ur onetarrantz doazen autoek zailtasunak dituztela behar bezala itzultzeko, eta kontrako bidera pasatzen direla. Arazo hori izan arren, Departamendu Kontseiluarekin erabaki zuten Kanborako sarbide hori mantentzea. Kamioentzako debekatua da eta orain desbideratzea erabili behar dute. Hautu hori inguruko biztanleak desbideratzea erabiltzera ez behartzeko egin dute, eta horrek hiri-barneko zirkulazioa handituko lukeelako. Beraz, bi itzulguneen artean noranzko bikoitza mantenduko da.

Nathalie Aïçaguerrek iradoki du Departamendu Kontseiluari beheko biribilgunea eraikitzeko aurkeztu zituzten argudioak berriz irakur ditzala galde dakiola, hastapeneko helburua bidegurutze horretan zirkulazio handia murriztea eta gunea libratzea baitzen.

Jean-Noël Magisek desbideratzea batez ere kamioak herri erditik desbideratzeko sortu zela, eta orain desbideratze hori hartu behar dutela azaldu du. Desbideratzearen helburu nagusia ibilgailu astunen zirkulazioa kudeatzea da. Itzulguneak, aldiz, zirkulazioaren joan-jinak errazteko dira.

Nathalie Aïçaguerrek eztabaidagai duten itzulgunea Paxkalekukoa baino lehen eginen ote den galdegin du.

Auzapezak zehaztu du herriak Albeniz itzulgunearen eskumena duela, eta horregatik proiektua aitzina daitekeela. Paxkalekuko itzulgunea, aldiz, herriaren esku ez diren zatiezintasun eta finantzaketa arazoengatik gibelatu dela. Proiektu horren gibelapena lur eta finantza trabekin lotua da. Gaurko hitzarmenari esker, Albeniz itzulguneko lanak herriak nahi duen egutegiaren arabera hasten ahalko dira.

Argitxu Hiriart-Urrutyk Ur onak eta Terrazetako lehen itzulgunearen arteko bidearen segurtasunagatik bere kezka adierazi du, berak eta bere lankideek maiz erabiltzen dutena. Zati hori biziki arriskutsua dela azpimarratu du, hiri barnera joateko bidea legez kanpo gurutzatzen duten egoiliarrengatik batez ere. Bidea noranzko bakarrean balitz hori ekidin liteke. Ertz bat jarri berri dutela ere kritikatu du: oinbide baterako dela dirudi, baina, haren ustez, bidea are arriskutsuagoa da, behar izanez gero ibilgailuak saihesteko lekua murrizten duelako.

Ertz horren helburuari buruzko argibideak galdegin ditu, eta horren baliagarritasuna bere baitan galdezkatu du. Gainera, Paxkalekuko itzulgunea oinezkoentzat egitea planteatu du, herriko sarrera hori seguragoa izateko gogoetak eta lanak pentsatu behar direla iradoki du, batez ere etorkizuneko urbanizazioa eta biztanleriaren emendioa aurreikusirik, oinez edo bizikletaz joan-etorri seguragoak ahalbidetzeko.

Jean-Noël Magisek azaldu du ertza "pareta-efektu" bat sortzeko dela, ibilgailuentzat ikusmen-oztopo gisa eragin eta abiadura apaltzeko. Horrelako hornikuntzek gidariak abiadura moteltzeko pentsatuak, (bide) konkorrak ez erabiltzeko. Departamenduko Kontseiluaren ikusmoldea da, gune horretako segurtasuna hobetzeko.

Nathalie Aïçaguerrek lurreko markak kritikatu ditu, gutiegi edo gaizki eginak direla iritzi du.

Jean-Noël Magisek azaldu du Departamenduko Kontseiluak ez dielako markatzeko galderei sistematikoki erantzuten, lurreko markak udalak egin zituela. Herriak segurtasun arrazoiengatik hartu zuen iniziatiba. Ur onak eta Beaulieu-ko etorkizuneko itzulgunearen arteko loturari dagokionez, herriak oinezkoentzako gune bat sortzeko azterketa bat egin zuela zehaztu du. Ez da oinbide oso bat izanen, 1,40 m-ko espazioa babestuko duen oinbide-bazter bat baizik.

Zerbitzu Teknikoen zuzendariak azaldu duenez, gaurko oinbidea Ur onen zubitik Paxkalekuko etorkizuneko itzulguneraino luzatzea aurreikusten du proiektuak, oinezkoentzako bidea sortuz. Oinezkoentzako bide hori bidearen eskuinaldean kokatuko da, ezkerraldea Errobi ibaitik hurbil baita. Beharrezkoa da bide-neurri bat mantentzea, 6,50 metroko zabalerakoa. Bihurgune batean izan ezik, hor zabalera 6 metrora murriztuko baita. Lineal osoan, betoizko koxka bat gehituko da, 20 cm-ko zabalerakoa, bihurguneetan gorago segurtasuna hobetzeko. APGL-k duela guti egin duen ikerketa batek zehaztu du aterabide hori.

Auzapezak oroitarazi du aitzineko eztabaida batean oinezkoentzako bideen edo oinbideen gaia jorratu zela. Hastapenean, bidearen beste aldean ezartzea aurreikusi zen, baina segurtasun arloko kezkak azaldu ziren, bereziki Sobamat enpresaren bulegoen inguruko bihurguneetan. Departamenduko Kontseiluari arrisku horien berri emateaz arduratu zen. Hori dela-eta, oinbidea beste aldean birkokatzeko azterketa bat egin zen, pareko etxearen lurra erosi behar izan gabe.

Philippe Bacardatzek txirrindularien segurtasunari buruzko kezka adierazi du. Araudiak txirrindulari bat pasatzea baimentzen duenez, 50 cm-ko tartea utziz eta marra xuria zapalduz, bidearen zabalera murriztea arazo bat izan litekeela adierazi du. Bide murriztuarekin, txirrindulariak oraino hertsituagoak izateko arriskua dute, bereziki bihurguneetan. Egoera horrek txirrindulariak zaurgarri egin litzake, behartuak eta arriskuan direla sendi daitezke.

Zerbitzu Teknikoen zuzendariak zehaztu du gaur egun bidearen zabalera 6,50 m-koa dela, baita bihurguneetan ere. Bihurguneetan zabalera hori mantendu behar da, itzulikatze-efektua konpentsatzeko, efektu horren ondorioz ibilgailuak pixka bat desbideratzen direlako.

Amaia Beyriek eztabaidaren proiektura itzuli da eta aldi baterako Albeniz eta Ur onen itzulguneen arteko errepide-zatian noranzko bakarra entseatzea iradoki du, aukera horren eragina eta bideragarritasuna ebaluatzeko.

Auzapezak baieztatu du Ur onen eta etorkizuneko Albeniz itzulgunearen arteko zirkulazioaren noranzko bikoitza mantentzea erabaki dela.

Nathalie Aïçaguerrek aparkalekuei buruzko informazioa galdegin du.

Jean-Noël Magisek adierazi du, geldituko den aparkaleku ttikia egokituko dela erabilgarria den espazioa optimizatzeko.

Auzapezak aparkaleku hori publikoa dela azpimarratu du, baina jabe pribatuek ere aparkalekuak sortzen lagundu behar dutela. Behin eta berriz dio pertsona pribatuen aparkatze beharrei erantzutea ez dela bakarrik kolektibitate publikoen ardura.

Jean-Noël Magisek gehitu du, mugikortasun planaren eta Hirigune Elkargoaren oharren arabera, aparkatzeko tokiak murriztearen helburua biztanleak beste garraiobide batzuk hartzera sustatzea dela. Helburua jendea oinez ibiltzera, garraio publikoa erabiltzera edo bizikletaz ibiltzera sustatzea da, batez ere abiadura lasaiko guneetan.

Alain Boscq-ek adierazi du Hazparnetik AIECera edo Terrazetara sartzeko beharrezkoak diren maniobren segurtasunagatik kezkatua dela. Etxe Urdinaren aitzinean bidea-moztea biziki arriskutsua dela, eta istripuak eragin ditzakeela. 150 metro urrunago den itzulgunea erabiltzea nahiago du, nahiz-eta horrek desbideratzea dakarren. Arriskuak saihesteko marra etengabea ezartzea gomendatu du eta Departamendu Kontseiluak gai hori azter dezala iradoki du. Segurtasun arazoa mugitzeak segurtasun eza urrunago eramanen duen beldur da.

Jean-Noël Magisek Departamenduko teknikariak segurtasun eta antolamendu gaiak kudeatzeko konfiantzazkoak direla baieztatu du.

Auzapezak ez du dudarik, Departamenduko Kontseiluak behar diren antolamenduak eginen ditu Albeniz plazabaratzearen eta, bereziki, Etxe Urdinaren aitzinean, ingurabidea bermatzeko. Gainera, Jean-Noël Magisek iradoki bezala, antolamenduen emaitzak neurtzeko denbora hartu beharko da, behar diren egokitzapenak egiteko.

Nathalie Aïçaguerrek galdegin du transformadorea eremuaren erdian ote dagoen.

Zerbitzu Teknikoen zuzendariak adierazi du transformadorearen balizko lekualdaketari buruzko Enedis-en erantzuna etortzeke dela. Informazio hori duela urte eta erdi galdegin du, eta duela hamabost egun Jean-François Harignordoquyk berriz luzatu dio galdera.

Philippe Bacardatzek galdegin du obra lekualdatzeko eskabide ofizialik egin ote den.

Zerbitzu Teknikoen zuzendariak zehaztu du Jean-François Harignordoquyk transformadorearen lekualdatzearen bideragarritasuna aztertu behar zuela lehenik.

Philippe Bacardatzek adierazi du argibideak galdeginen dituela eta egoera zein den jakinaraziko duela. Azpimarratu du Enedis kritikatzeko aise dela, eta aitzineko galderen eta arazoen datak emanen dituela.

Nathalie Aïçaguerrek gogoan du lehen postu elektrikoaren lekualdatzea galdegin zutela. Aipatu du, lekualdaketa-aren gastua handia zela eta, azkenean, Udalak itzulgunearen proiektua bertan behera uztea erabaki zuela.

Auzapezak zehaztu du postu elektrikoa lekuz aldatzeko galdera behin eta berriz egin dutela, orain arte ez dutela erantzunik. Gaineratu du, postuarekin gertatuko dena gertatuta ere, itzulgunea gaur egun aurkeztutako proiektuaren arabera egokituko dela.

Philippe Bacardatzek duela hiru edo lau urte Terrazetan osasun zentro bat eraikitzeko proiektua blokeatu egin zela oroitarazi du, jabeak ez zuela goialdean sarrera bikoitza egin nahi. Jabeak iritzia alda dezan zerbait aldatu ote den edo arrazoi berri bat sortu ote den galdegin du.

Auzapezak jabeen arazoaren xehetasunak ez dituela ezagutzen azaldu du, baina berretsi du jakinarazi diotela osasun zentroaren proiektua bertan behera utzi dutela.

Albeniz eta Paxkalekuko itzulguneen finantzaketa erabakigarria dela azpimarratu du. Proiektu horiek ez badira gauzatzen, Departamenduko Kontseiluak funtsak finantzatzeko diren beste proiektu batzuei berresleitu diezazkiekeela.

Argitxu Hiriart-Urrutyk galdegin du 350.000 €-ko gastuan plazabaratzeare antolamendua sartzen den edo gastu hori bereizia den.

Zerbitzu Teknikoen zuzendariak azaldu du 350.000 €-ko gastuan plazabaratzearen antolamendua sartzan dela. Hala ere, zehaztu du Departamenduak ez duela gastu hori bere gain hartzen, bide obrak finantzatzera mugatzen baita. Kanpoko edertze lanen gastuak obralariak ordainduko ditu.

Argitxu Hiriart-Urrutyk 350.000 €-ko aurrekontuaren zatiari buruz, plazabaratzearentzat bereziki atxikia den zatiari buruz argibideak galdegin ditu.

Bere iritzia pertsonala da itzulgune horren planoak antolamendu biziki minerala erakusten duela, eta hori, bere ustez, ez da hoberena, udak gero eta beroagoak ditugula kontutan harturik. Harri gehiegi erabiltzea, beroa itzultzen dutenez, beharbada ez dela aukera zentzuzkoena iradokitzen du eta landare gehiagoren aldekoa da.

Jean-Noël Magisek zehaztu duenez, minerala plazabaratzean eta eskaileretan erabiliko dela bakarrik. Edozein paisaia-antolamenduk zirkulazio abiadurak murrizten laguntzen duela gaineratu du. Kalitatezko antolamendu batek gidarien arreta erakartzen du, eta ingurumenaren xehetasunak behatzeko abiadura moteltzera eramaten ditu. Antolamenduek herritarren begiradaren bilakaeran rol bat betetzen dutela azpimarratu du, eta horrek ingurumenari kasu egitera eramaten dituela.

Auzapezak adierazi du proiekturako aurreikusiak diren 350.000 €-tatik 90.000 guti gorabehera berdeguneen antolamendurako, balorizaziorako eta plazabaratzera sarrera ahalbidetzen duten horniketetan erabiltzen direla.

Argitxu Hiriart-Urrutyren ustez, 90.000 € zenbateko handia da, eta Kanboko biztanleentzat manera onuragarriagoan erabil litekeela iradoki du.

Auzapezak erantzun du guztiek dutela beren iritzia emateko eskubidea, baina uste du sarbidearen antolamendurako eta berdeguneen antolatzeko esleitutako 90.000 € horiek 240.000 €-ko aurrekontu osoaren arrazoizko zati bat direla.

Philippe Bacardatzek adierazi du Enedisi buruzko kritikak berriz aipatuko dituela erantzun bat emateko beharrezko elementuak bildu bezain laster.

Zerbitzu Teknikoen zuzendariak argitu du egin diren oharrak ez direla erasoa, informazioa baizik.

Itzulgunearen lekualdatzeari dagokionez, auzapezak zehaztu du Enedisen erantzuna ukaiteko epeari buruzko kritikak ez direla gehiegi interpretatu behar eta Harignordoquyrekin, bere arduradunarekin, izan dituzten harreman bikainak azpimarratu ditu.

Zerbitzu Teknikoen zuzendariak zehaztu du obra lekualdatzeko galdera administratibo formala aurkeztu baino lehen, Jean-François Harignordoquyri gai horri buruzko galdera egin ziotela hainbat hilabetez.

008 – Eskolako korralea egokitzea: hitzarmena Arkitektura, Hirigintza eta Ingurumenaren Kontseiluarekin (AHIK)

EZTABAIDA:

Auzapezak biltzarrari jakinarazi dio Kanboko herriak Pirinio Atlantikoetako Arkitektura, Hirigintza eta Ingurumen Kontseiluak (AHIK 64) antolatu duen "À vous de jouer!" proiektu

deialdian parte hartzea proposatu duela. Proiektu honen helburua eskolako korralea eraldatzea da, jostatzeko eta ikasteko espazio naturalagoak, biziagoak eta inklusiboagoak sortzeko.

Osasun Zaintzako Institutuaren ikerketa baten arabera, hamar haurretik lauk egunean ordu erdi baino gutiago pasatzen dute kanpoan, eskola orenetatik kanpo. Kanpoko aktibitateak haurren ongizate eta osasunerako funtsezkoak dira. Eskolako korraleak aktibitate horietarako leku ezin hobeak dira eta ikasleek, batzaz beste, egunean bi oren pasatzen dituzte bertan. Gure helburua espazio hauek birpentsatzea da, ingurune naturalago batean esplorazioa, jokia eta loratzea sustatzeko.

Proiektuaren helburuak:

1. **Haurren ongizatea:** korraleak haurren beharretara egokitu, erosotasuna eta segurtasuna eskaintzeko.
2. **Ekologia eta jasangarritasuna:** euri-uren kudeaketa integratu, biodibertsitatea sustatu eta tokiko material jasangarriak erabili.
3. **Inklusioa eta berdintasuna:** espazio inklusiboak sortu, haur bakoitza integratua senti dadin, bere generoa edo gaitasuna edozein dela ere.
4. **Hezkuntza eta pedagogia:** korralea tresna pedagogiko gisa erabili, irakasleek kanpoko aktibitateak antola ditzaten.

Desmartxa: "*A vous de jouer!*" proiektuak etapa desberdinak ditu, sentsibilizaziotik hasi eta gauzatzeraino:

1. **Sentsibilizazioa eta elkar aditzea:** sentsibilizazio tailerrak irakasleekin, ikasleekin, gurasoekin eta herriko agenteekin, beharrak eta ideiak zehazteko.
2. **Asmakuntza:** neurrira egindako proiektu sortzaile, ekonomiko eta jasangarriak garatu, erabiltzaileekin elkar adituz.
3. **Gauzatzea:** korraleak pausoka eraldatu, Herriko Etxeak egindako lanak eta lan-sail parte-hartzaileak integratuz.

Lankidetza eta elkarlana: paisaia, eremu publikoetan, pedagogian eta obrak egiten profesional diren pertsonekin osatzen den talde batekin elkarlanean arituko gara. Talde honek proiektuan zehar lagunduko gaitu, askakuntzatik hasi gauzatzerarte, tokiko trebetasunak integratuz eta gure herriko langileak trebatuz.

Aurrekontua: eskola-korrale bakoitzaren aurrekontua: 50.000 € (BEZ-a kanpo), ekipoaren eta obren ordainketa barne.

Egutegia: eginkizuna 2024ko urrian hasi eta 2025eko urrian bukatuko da. Egutegi zehatz bat finkatu eta ikasleen eta irakasleen parte-hartze aktiboa bermatuko da proiektuaren denboran.

"*A vous de jouer!*" proiektuan parte hartuz, Kanboko herriak bere eskolako korralea espazio dinamiko eta hezitzaile bilakatzeko konpromisoa hartu du, haurren beharrei eta egungo erronka ekologikoei erantzuteko. Proiektu eredugarri hau, Departamendu osoko beste 11k bezala, beste kolektibitateentzat inspirazio iturri izanen da. Eskola-korrale bizi, inklusibo eta iraunkoragoetarako bidea erakutsiko du.

Herriko Kontseiluak, horri buruz eztabaidatu ondotik, honako hau erabaki du aho batez:

BAIMENA EMATEN DIO auzapezari AHIK 64rekin hitzarmena izenpetzeko, eskola-korralea antolatzeke, bai-eta gai honekin lotutako dokumentu guztiak izenpetzeko ere.

PARTE HARTZEAK

Argitxu Hiriart-Urrutyk proiektu hori bakarrik eskola publikoari zuzentzen ote zaion galdegin du.

Auzapezak adierazi du Departamentuak AHIK-en bitartez abiatu duen ekimen berritzailea den proiektua, eskola publikoari zuzentzen zaiola oraingoz. Finantzaketaren erronka garrantzitsua dela azpimarratu du, diru laguntzen aukerak ezagutu bitartean . Gaur egun, Uraren Erakundeak bideragarritasun ikerketen gastuen, animazioa, trebakuntza eta sentsibilizazioen gastuen %50 ordainduko duela aurreikusten da. Departamenduko Kontseiluak 400.000 €-ko ekarpena egin dezake, hau da, 60.000 €. Funts Berdearen bidez finantzaketa osagarria ere jin daiteke.

Amaia Beyriek aipatutako informazioak herriko aldezkarian agertzen direnak ote diren galdegin du.

Auzapezak baietz erantzun du.

Amaia Beyrie ohartu da erabakiak bozketa aitzin hartzen direla.

Auzapezak zehaztu du proiektua ez dela oraino martxan. Zehaztu du AHIK (Arkitektura, Hirigintza eta Ingurumen Kontseilua) eta herriak pertsona bat hartzea aurreikusten dutela ikasturte hastapenean, beste herri guztiekin lanaren koordinazioaz arduratzeko.

009 – Energia berriztagarrien azeleratze zonaldeak (ZAEnR): hitzartzearen bilana eta ZAEnR-en onartzea.

ERABAKIA:

Magisek, axuantak, Herriko Kontseiluari 2024ko apirilaren 10eko eztabaida oroitarazi dio. Orduan, energia berriztagarriak ekoizteko lehorreko instalazioak ezartzeko azelerazio zonaldeak (ZAEnR) definitzeko asmoz, elkar aditze modalitateak finkatu ziren. 2023ko martxoaren 10eko 2023-175 Legearen 15. artikuluan aurreikusia den bezala energia berriztagarrien ekoizpena bizkortzeko.

Eztabaida honen ondorioz:

- 2024ko apirilaren 15etik 30era, informazio dosierra bat eta Herriko Etxeak aurreikusi zituen energia berriztagarrien azeleratze zonaldeei (ZAEnR) buruzko kontsulta elektroniko bat eskuragarriak izan ziren. Herriko Etxean kontsulta-erregistro batean oharrak egiteko aukera ukan zuten herritarrek beti.

Magisek zehaztu du elkar aditze horrek ez duela herritarren oharrak ekarri, eta, elkar aditzearen ondorioz ZAEnRak gisa horretan balioztatu direla:

- Eguzki-energia herriko lurralde osoan,
- Energia geotermikoa herriko lurralde osoan,
- Energia hidroelektrikoa (ikus 1. eranskinen mapa),
- Energia Bero-sarea (ikus 2. eranskinen mapa),
- Energia Biogasa udalerriaren lurralde osoan.

Horri buruz eztabaidatu ondotik, Herriko Kontseiluak, aho batez:

ONTZAT EMAN DITU elkar aditzearen bilana eta horri eman zaion bidea,

ONARTU DITU azeleratze zonaldeen proposamenak, goian aurkeztu bezala eta eranskinetan agertzen diren bezala.

Eztabaida Hirigune elkargora eta Departamenduko prefekturako erreferenteari igorriko zaie.

PARTE HARTZEAK

Auzapezak azaldu du hautatzeko irizpideak sortu litezkeen proiektu berriak sartzeko behar bezain zabalak proposatzen direla, baina, alderantziz, horrek ez duela edozein proiektu automatikoki onartuko denik bermatzen.

Argitxu Hiriart-Urrutyk biogasaren definizioari buruzko argibideak galdegin ditu.

Auzapezak azaldu duenez, metanizazioak sortu ohi du biogasa, bereziki abeltzaintzan. Biarnon adibideak badirela zehaztu du, baina prozesua konplexua dela azpimarratu du eta, bereziki, inbestimendu horren errentagarritasunari dagokionez.

Philippe Bacardatzek adierazi du metanizazio adibideak atzemateko ez dela Biarnora joatea beharrezkoa, Itsasun badela bat eta laborari horrek biogas sistema bat erabiltzen duela.

Peio Etxelekuk metanizaziorako guneen kartografiari buruzko iritzia eman du, azpimarratu du nolabaiteko malgutasuna ahalbidetzen duen arren, biogas-sistemaren murrizketak zorrotzegiak direla. Tokiko autokontsumo energetikorako erabil daitezkeen mikrometanizazio sistemak laborarietako gero eta gehiago kontutan hartzen dituztela, eta balitekeela murrizketa horiek Kanboko etorkizuneko beharretara ez egokitzea.

Jean-Noël Magisek zehaztu du metanizaziorako zehaztutako perimetroek prozedurak fiteago egiteko balio dutela eta dirulaguntza gehigarriak baliatzeko aukera direla. Hala ere, horrek ez du erran nahi perimetro horietatik kanpo diren proiektuak ezinezkoak direnik. Laborarietako eremu horietatik kanpo metanizazio proiektuak burutu ditzakete, baina urrats administratiboak eta finantzaketa aukerak konplexuagoak izan litezke.

Peio Etxelekuk laborantza eremuak metanizazio proiektuetarako balizko perimetroetan sartzeko zuzenketa bat proposatu du. Proiektu fotovoltaikoen kasuan bezala, instalazio horietako laborantza eremuetan ahalbidetzea egokia dela azpimarratu du, gero gauzatu ala ez. Horrek proiektu ttikiagoen prozedura batzuk azelera ditzake eta egungo murrizketek ekartzen dituzten konplikazioak saihestu.

Zerbitzu Teknikoen zuzendariak azaldu du zonifikazio-proposamenak zirriborro fasean direla. Estatu frantsesari aurkeztuko zaizkio, baliozkotu ditzan eta behar balitz zuzenketak egin ditzan. Proposatutako eremuak ez dira behin betikoak, eta itzulkinen eta egin beharreko berregokitzeen arabera alda daitezke.

Auzapezak berretsi du deliberamendua aldatuko dela interesa izan dezaketen laborari guztiak sartzeko eta biogas-proiektuetarako aukerak zabalduko direla.

Philippe Bacardatzek proiektu fotovoltaikoen instalatzearen testuinguruan lurreko instalazioaren definizioari buruzko galdera bat egin du. Kanpoko instalazioei (lurrekoak) bakarrik eta ez teilatu gainekoei dagokien argitu nahi du.

Zerbitzu Teknikoen zuzendariak azaldu du ZAEnR eremua ez dela agrifotovoltaikoari buruzkoa, azken hau baserrietan txertatutako proiektu fotovoltaiako mota bat baita.

Philippe Bacardatzek instalazio horiek teilotuan edo lurrean egingen diren galdegin du. Azken kasu horretan, panel fotovoltaiakoak lursail handietan instalatzeko eskaera egin diezaioke Herriko Etxeari.

Jean-Noël Magisek erantzun dio eskaera hori ez dela onartuko, Tokiko Hirigintza Planak (THP) ez duelako onartzen, eta beste batzuk ere aplikatzen direla gaineratu du.

Peio Etxelekuk adierazi duenez, agrifotovoltaiismoari buruzko Legearen helburua panel fotovoltaiakoen integrazioa laborantza ekoizpenarekin orekatzea da, agrifotovoltaiismoak sortutako diru-sarrerak laborantzak sortzen duen diru-sarreraren ehuneko jakin batera (% 10) mugatuz.

010 – Goi-mailako irakaskuntzako herriko dirulaguntza 2023-2024 urterako.

EZTABAIDA:

Aristizabalek, axuantak, biltzarrari oroitarazten dio 2024ko otsailaren 28an 20240228-010 zenbakidun deliberamendu bidez, Herriko Kontseiluak 18 dirulaguntza ematea erabaki zuela, 7.677 €-ko zenbatekoarekin.

Egiaztatu da goi-mailako irakaskuntzako dirulaguntzak eskuratzeko baldintza guztiak betetzen dituzten hiru ikasle ez direla esleitutako zenbatekoan zenbatu, hau da, 1.324 €-ko zenbatekoa. Horrek erran nahi du 2023-2024 urterako dirulaguntzak 9.001 €-ra igotzen direla.

Horri buruz eztabaidatu ondotik, Herriko Kontseiluak, aho batez:

ONARTU DU goi-mailako irakaskuntzako dirulaguntza emateko osagarria, 2023-2024 urterako, 1.324 €-koa.

011 – Eskola-garraioa: hitzarmena Ipar Euskal Herri-Aturriko Mugikortasunen Sindikatuarekin.

ERABAKIA:

Auzapezak oroitarazi du 2021eko uztailaren 1etik Ipar Euskal Herri-Aturriko Mugikortasunen Sindikatua (Mugikortasunen Sindikatua) Mugikortasun Iraunkorrak Antolatzeko lehen mailako Agintaritza dela. Estatutu hori kontutan harturik, Mugikortasunen Sindikatuak bere lurraldean eskola-garraioko zerbitzuak antolatzeko eskumena du: Hirigune Elkargoaren herri guztietan eta Tarnose, Ondres eta San Martin de Seignanx herriak biltzen dituen lurraldean.

Salbuespen gisa, Kanboko herriak eskola-garraioa antolatzeko eskumena mantentzea erabaki zuen (kanpoko zirkuituari dagokionez). Beraz, Mugikortasunen Sindikatuak bere eskumena Kanboko herriaren esku utzi du, azken hau bigarren mailako (AO2) aginte antolatzailea da.

Eskumen horren erabilpena hitzarmen baten baitan sartzea komeni da, Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L.1111-8 artikulua eta Garraio Kodeko L.3111-9 artikulua aplikatuz.

2020ko uztailaren 16ko eztabaidan, Herriko Kontseiluak auzapezari baimena eman zion oinarri juridiko horrekin hitzarmen bat izenpetzeko, zeina 2024ko uztailaren 31n bukatzen den. Beraz, berritu egin behar da.

Hitzarmen berria, 4 urteko iraupena izanen duena, 2024/2025 ikasturtetik aitzina indarrean sartuko da.

Mugikortasunen Sindikatuak zein baldintzatan Herriari eskua uzten dion zehazten da Hitzarmenean (AO2):

- Mugikortasunen Sindikatuaren lurraldean bizi diren ikasleentzat eskola-zerbitzu eskuordetuak gauzatzea, antolatzea eta funtzionatzea;
- Bere eskumeneko ikasleei zuzendutako eskola-garraioko zerbitzu baten segurtasuna.

2024ko uztailaren 4an bildu zen Mugikortasunen Sindikatuko batzorde sindikalak, eranskinean datorren hitzarmen proiektua aztertu zuen.

Azalpen hau entzun eta eztabaidatu ondotik, Herriko Kontseiluak, aho batez:

BAIMENA EMATEN DIO auzapezari eranskinean agertzen den hitzarmena eta horrekin lotutako dokumentu guztiak izenpetzea.

012 – Altxor publikoa: finantza publikoen zentroko bulegoen alokatze kontratuari lengo gehigarria.

ERABAKIA:

Auzapezak biltzarrari oroitarazi dio, 2023ko uztailaren 5eko eztabaidan Pirinio Atlantikoetako Finantza Publikoen Departamentuko Zuzendaritzarekin (Estatu frantsesaren kontura ari dena) alokatze kontratua berritzea onartu zuela Herriko kontseiluak. Alokatzeko kontratua Herriko Etxearen etorbidea, 3 rez de chaussé dauden lokalentzat da, bederatzi urterako, 2023ko urriaren 1etik aitzina.

Herriak Kontabilitate Kudeaketako Zerbitzuaren (SGC Ipar Euskal Herriko kostaldea) adarra gorago aipatutako eraikinaren goiko estaian ezarri nahi du, Polizia Munizipala eta bideozaintzaren bistaratze-gela beheko solairura transferitzeko.

2024ko apirilaren 29ko posta elektronikoaren bidez, Estatu frantseseko zerbitzuek aldaketa hori berretsi zuten.

Ondorioz 2023ko abuztuaren 11n izenpetutako alokatze-kontratua aldatu behar da. Alokaturako ondasunen izendapena aldatu eta alokairuaren zenbatekoa Kontabilitatearen Kudeaketarako Zerbitzuaren adarrak hartuko duen azalera erabilgarri gordin berriari egokitu behar zaio.

Alokatzeko kontratuaren aldaketak hauek dira:

- Alokaturako ondasunen izendapena, deskribapen honekin: arduradunaren bulegoa: 18,60 m²; aholkulariaren bulegoa tokiko arduradunentzat: 15,13 m²; agenteen bulegoa: 23,10 m²; lokal

soziala: 11,85 m²; sanitarioak: 14,08 m²; artxiboak: 15,18 m²; lokal teknikoak: 7,74 m²; orotara, 105,68 m²-ko azalera erabilgarri gordina.

- Urteko alokairuaren zenbateko berria, alokatutako azalera erabilgarri gordinaren gehikuntzaren proportzioan eratorria: $5.858 \text{ €} \times (105,68 \text{ m}^2 : \text{azalera berria} / 88 \text{ m}^2 : \text{azalera zaharra}) = 7.035 \text{ €}$

Azalpen hau entzun eta eztabaidatu ondotik, Herriko Kontseiluak, aho batez:

BAIMENA EMATEN DIO auzapezari 2023ko abuztuaren 11ko alokatze-kontratuari lengo gehigarria izenpetzeko, eranskinean agertzen den bezala, bai-eta gai honekin zerikusia duten dokumentu guztiak izenpetzeko ere.

013-A – Berreskuratze administratiboa izan duten hilobien birsalmenta prezioa finkatzea.

EZTABAIDA:

Aizpuruk, axuantak, biltzarreko kideei jakinarazi die 2020ko ekainaren 11n Herriko Kontseiluak auzapezari emandako ordezkartzaren egokitzapenari buruzko deliberamendua ikusirik, 2024ko uztailaren 10eko dekretu bidez, kontzesio hauen berreskuratzea erabaki zela:

- 2111 zenbakidun kontzesioa, sise Sekzioa C Lerroa 2 zk.2, 6 tokiko hilobi bat eta monumentu batez hornitua,
- 2183 zenbakidun kontzesioa, sise Sekzioa C Lerroa 3 zk.2, 4 tokiko hilobi bat eta monumentu batez hornitua,
- 2062 zenbakidun kontzesioa, sise Sekzioa C Lerroa 4 zk.4, 4 tokiko hilobi bat eta monumentu batez hornitua,
- 2047 zenbakidun kontzesioa, sise Sekzioa C Lerroa 4 zk. 8, 4 tokiko hilobi bat eta monumentu batez hornitua,
- 2428 zenbakidun kontzesioa, sise Sekzioa E Lerroa 3 zk.1, 4 tokiko hilobi bat eta monumentu batez hornitua,
- 2495 zenbakidun kontzesioa, sise Sekzioa E Lerroa 3 zk.2, 4 tokiko hilobi bat.

Hileta-ekipamendu hauek herrira itzuli dira administratiboki, baina berrizendapenak egin aitzin konpontze materialak eta birgaitze-lanak egitea beharrezkoa da.

Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorraren (LKKO) L. 2 223-13 artikulua eta Estatuko Kontseiluaren iritzia kontutan harturik Barne ministroaren 1993ko urtarrilaren 28ko 93-28 C zirkularraren arabera, kontzesioak eta hileta ekipamenduak berresleitzeko, hilobi eta hilobi-monumentuen birsalmenta prezioari buruzko iritzia ematea komeni da, horiek udalerrira itzuli baitira.

Irizpide hauek kontutan harturik:

- 1975 eta 1986 artean Herriari, 4 eta 6 tokiko hilobien erosteko prezioa,
- Frankoak euro bilakatzea, inflazioak eragindako diru-higadura kontutan harturik,
- Monumentu bat ote den ala, zein egoeratan den eta zenbat balio duen estimatzen den,
- Berrizendatu aitzin egin beharreko lanen izaera, garrantzia eta gastua (monumentuak anonimizatzeko lixatzea, konponketa materiala lurpetik ateratzeko, birgaitzea, legarrak hustea).

- Monumenturik gabeko 4 eta 6 tokiko hilobien gaurko prezioa.

Hileta-ekipamenduen birsalmenta prezioa hauetan finkatzea proposatzen da:

- 4 000 €, 6 tokiko hilobia eta monumentua 2111 zenbakidun kontzesioa, *sise* Sekzioa C Lerroa 2 zk.2
- 3.400 €, 4 tokiko hilobia eta monumentua 2183 zenbakidun kontzesioa, *sise* Sekzioa C Lerroa 3 zk.2
- 3 000 €, 4 tokiko hilobia 2062 zenbakidun kontzesioa, *sise* Sekzioa C Lerroa 4 zk.4
- 3.400 €, 4 tokiko hilobia eta monumentua 2047 zenbakidun kontzesioa, *sise* Sekzioa C Lerroa 4 zk. 8
- 2.800 €, 4 tokiko hilobia 2428 zenbakidun kontzesioa, *sise* Sekzioa E Lerroa 3 zk.1
- 2.500 €, 4 tokiko hilobia 2495 zenbakidun kontzesioa, *sise* Sekzioa E Lerroa 3 zk.2

Azalpen hau entzun eta eztabaidatu ondotik, Herriko Kontseiluak, aho batez:

FINKATZEN DITU berreskuratze administratiboa izan duten hilobien birsalmenta prezioak, gorago zehaztu bezala.

BAIMENA EMATEN DIO auzapezari horren inguruko eta horrekin lotutako edozein dokumentu izenpetzeko ere.

013-B – Hilobi berrien salmenta prezioa finkatzea.

EZTABAIDA:

Aizpuruk, axuantak, adierazi du bi tokiko hilobi bat eta lau tokiko beste bat ezartzen ari direla herriko hilerrian.

Beraz, Herriko kontseiluak hilobi berri hauen salmenta prezioa finkatu behar du, etorkizuneko galderei erantzuteko.

Kostu prezioa kontutan harturik, unitate-prezio hauek finkatzea proposatzen da:

- 2.600 € bi tokiko hilobia,
- 3.400 € lau tokiko hilobia.

Azalpen hau entzun eta eztabaidatu ondotik, Herriko Kontseiluak, aho batez:

FINKATU DU bi hilobien berrien salmenta-prezioa:

- Bi tokiko hilobia: 2.600 €
- Lau tokiko hilobia: 3.400 €

BAIMENA EMATEN DIO auzapezari horren inguruko edozein desmartxa egiteko, bai-eta horrekin lotutako edozein dokumentu izenpetzeko ere.

014 – Hirigune Elkargoa: 2024-2029 aitzinamenduzko kontratua.

EZTABAIDA:

Auzapezak biltzarrari oroitarazi dio, aitzinamendu kontratuen arloan, Euskal Herri-Aturri Hirigune Elkargoak (Hirigune Elkargoa) herriei eta herrietako sindikatuari euskara pixkanaka beren zerbitzuetan sartzea proposatu diela.

2015eko azaroaren 30eko eztabaidaren ondoren, Kanboko herria proposamen horrekin bat etorri zen.

2023ko apirilaren 14ko eztabaidan, Herriko kontseiluak, herriaren langile-hartzearen bilakaera kontutan harturik, urtebeteko aitzinamendu kontratu bat baliozkotu zuen 2023 urterako. Kontseiluak aitzinamendu kontratu nagusiaren proiektua bukatu bitartean hartu zuen erabaki hori.

Trantsizio urte horretan, zerbitzuek borondatezko agenteen hizkuntza maila ebaluatzeko urrats teknikoak burutu dituzte, zerbitzuaren funtzionamenduan txertatu dute formakuntza eta, urte anitzeko aurrekontuaren mailan, formakuntzetara joateko egutegia finkatu dute.

Auzapezak Herriko Kontseiluari sei urterako aitzinamendu kontratu bat onartzea proposatu dio. Kontratu horrek 2024ko urtarrilaren 1etik 2029ko abenduaren 31ra arte iraunen luke eta neurri hauek bilduko lituzke:

- Euskarazko lan-formakuntza plan bat sortu: zerbitzua euskaraz eskaini. Aitzinamendu kontratuko formakuntza planak borondatezko 7 agente formakuntzara bidaltzea aurreikusten du 2024-2029 denboraldian. 2024 urterako, formakuntzarako planak 4 agente bidaltzea aurreikusten du. Urteko gehienezko gastu pedagogikoa 22.328 € izanen da.
- Dokumentuen itzulpena egin. Herriko agenteek Hirigune Elkargoaren laguntzarekin. Urtean gehienezko 4.000 €-ko aurrekontua lan eta komunikazio euskarrien itzulpena egiteko.
- Urteko aurrekontu mobilizagarria finkatu, gehienezko 4.000 €-koa hautetsi eta agenteentzat sentsibilizazio-tailerrak finantzatzeko.
- Urteko ekintza-programa egin, elebiduna edo euskara hutsean. Lehentasunezko zerbitzuetan eta herrian euskara erabilera efektiboa pixkanaka garatzeko (seinaletika eta afixatzea, euskarazko proiektuak, etab.).

Hirigune Elkargoak aitzinamendu kontratuaren finantzaketan parte hartzeko konpromisoa hartzen du, % 50eraino, eta gehienez 19 164 €-raino.

Azalpen hau entzun eta eztabaidatu ondotik, Herriko Kontseiluak, aho batez:

BAIMENA EMATEN DIO auzapezari Hirigune Elkargoak Kanboko herriarentzat proposatu duen 2024-2029 aitzinamendu kontratua izenpetzeko, eranskinean agertzen den bezala eta gai horrekin lotutako dokumentu guztiak.

015 – Hirigune Elkargoa: herriko Euskara zerbitzua garatzeko partaidetza hitzarmena.

EZTABAIDA:

Auzapezak biltzarrari azaldu dio, 2018ko ekainaren 23an, Hirigune Elkargoak euskararen aldeko hizkuntza-politika proiektu bat onartu zuela. Proiektu horren helburua herritarrei zuzenduak diren eta herrien arteko zerbitzuetan eskaintza elebiduna egituratzea da. Baita herritarrek euskararekin bat egiteko eta euskararekiko atxikimendua indartzeko etengabeko sentsibilizazio-estrategia bat garatzea.

Hirigune Elkargoak euskara bere politikan pixkanaka txertatzeko lan egiten du eta hizkuntza politika garatu nahi duten herriek laguntza bat proposatzen die.

2019ko abenduaren 14an, Elkargoak herrietako laguntza dispositiboen harmonizazioari buruz eztabaidatu zuen. Esparru horretan, euskararen herriko zerbitzuak abian ezartzeko eta garatzeko laguntza bat proposatzen du, 3 urteko iraupena duen eta apaltzen doan laguntza da. Lehen urtean gehienez 15.000 €-takoa, gehienez 10.000 € bigarren urtean eta gehienez 5.000 € hirugarren urtean.

2023ko urtarrilaren 1etik goiti, Kanboko herriak herri mailan hizkuntza politika bat landu eta aplikatzeko euskara zerbitzua sortu du. Bi funtzionario kontratupean hartu ditu, eta bakoitzak bere lan denboraren erdia euskara zerbitzuan lan egiteko erabiltzen du. Bi 0,5 DOP (Denbora Osoaren Baliokide) horiek, beraz, euskal hizkuntza-politika garatzeko denbora osoa osatzen dute.

Hitzarmen honen xedea euskararen herriko zerbitzua garatzeko Hirigune Elkargoa eta Kanboko herriaren arteko elkarlanaren edukiak eta aplikazio modalitateak definitzea da. Hitzarmenak hiru urtez iraunen du, 2024ko urtarrilaren 1etik 2026ko abenduaren 31ra.

Hitzarmena nola gauzatzen den gainbegiratzeko, urtean bi aldiz bilduko den gidaritza batzorde bat sortuko da.

Azalpen hau entzun eta eztabaidatu ondotik, Herriko Kontseiluak, aho batez:

ONARTZEN DITU eranskinean datorren hitzarmenaren baldintzak,

BAIMENA EMATEN DIO auzapezari Hirigune Elkargoarekin Euskara herriko Zerbitzua garatzeko aldera lankidetzak-hitzarmena izenpetzeko, baita gai honekin zerikusia duten dokumentu guztiak ere.

PARTE-HARTZEAK:

Amaia Beyriek urtean behin azaroan biltzen zen euskara batzordearekiko kezka adierazi du. Orain batzorde hori ez dela behin ere biltzen deitoratu du, horrek euskara sustatzeko eta babesteko beharrezkoa den dinamika kaltetzen duela pentsatzen du. Bere ustez gidaritza batzordearen lana ezin da hitzarmenak izenpetzera eta aurrekontuak transferitzera mugatu; energia eta konpromiso etengabe batek animatu behar du. Beraz, euskara batzordea urtean bizpahiru aldiz biltzea iradokitzen du, agente espezializatuen lanaz gain, dinamika aktibo bat mantentzeko.

Auzapezak erantzun du beharra adieraziz gero batzordea maizago bil daitekeela, baina azpimarratu du aitzinamendu interesgarriak egin direla, batez ere bi langileen lanari esker. Beraiek egindako lanarekin pozik dela adierazi du, eta uste du ahalegin horiek eragin nabarmena izan dutela, nahiz eta ez beti aitortua izan. Batzorde horren elkartzeen gaira itzuliz, auzapezak oroitarazi du bilkura

batean aipatu zen iritzi orokorraren arabera momentu horretan indarrean zen "aitzinamendu kontratua" ez zetorrela Kanboko behar espezifikoekin bat.

Ehazki aipatu du bilkura horren ondotik arazoa konpontzeko pertsona batzuk kontratatzeko erabakia hartu zela. Batzordeak bildu daitekeela onartu du, baina eraginkortasunik gabeko "bilkuritis" bat bilakatu gabe. Auzapezak bilkura horiek sortutako frustrazioak oroitarazi ditu, eztabaidek ez baitzuten beti emaitza zehatzik ekarri. Hala ere, langile berriek egin duten lanarekin eta piztu duten dinamika positiboarekin pozik dela berretsi du.

Amaia Beyriek argitu du bere oharrak ez zuela bi langileen lana kritikatzeko, ez duela hori inondik inora zalantzan ezartzen. Batez ere beraien lana egiten ez duten hautetsiei buruzko iruzkina egin duela azpimarratu du.

Auzapezak erantzun du urtean behin bakarrik egiten ziren hautetsien aitzineko bilkurak sarri ez zirela emankorrak eta egiaztapen eta kritika etsigarriak egiten zituztela. Batzordea berriz bildu daitekeela erran du, baina lan eraginkor eta zehatza bilkura horietatik aparte egin dela azpimarratu du. Euskara sustatzeko ekintza nabarmen eta esanguratsuak egin direla azpimarratu du, hori dela funtsezkoa, eta horrekin biziki kontent dela.

016 – Mediateka: bildumen sailkatze eta garbiketa.

EZTABAIDA:

Barbier-ek biltzarrari jakinarazi dio, 2014ko uztailaren 21eko eztabaidan, Herriko Kontseiluak herriko mediatekako bildumetan lekurik ez duten dokumentuak kentzeko irizpideei eta modalitateei buruz erabaki bat hartu zuela.

Barbier-ek eztabaida hori eguneratzea proposatu du, agiri horiek kentzearekin lotutako formalitate administratiboak zehazteko.

Ezabatzeko dokumentuak hauek dira:

- Egoera fisiko txarrean diren dokumentuak (konpontzea ezinezkoa edo garestiegia denean) edo argi eta garbi zaharkituak direnak: arrazoi horregatik kenduak eta ordezkatuak diren obrak suntsituko dira, eta, ahal bada, birziklatzeko paper gisa balorizatuko dira;
- Ale kopuru handiegia, beharrezkoak direnak baino kopuru handiagoan eta erabiltzaileen eskaerarekin bat ez datorrena (kontsulta edo mailegu falta): arrazoi horregatik kenduak diren dokumentuak behar lituzketen erakundeei eskainiko zaizkie (liburutegi ttikiak, zaintza etxeak, zaharren egoitzak, eskola publikoak/pribatuak eta Kanboko aisialdi zentroa), partikularrei saldu edo bestenaz suntsituko dira, eta, ahal bada, birziklatu egingo dira paper gisa erabiltzeko.

Administrazio-formalitateak:

Kasu guztietan, suntsitutako edo emandako dokumentu bakoitzak "suntsitutako liburua (data)" edo "Kanboko mediatekak emana (data)" aipamena izanen du, inbentario-zenbakiak ezabatuko dira eta dokumentuak mediatekako katalogotik kenduko dira. Bildumetatik kendutako dokumentuen zerrenda artxibo digital gisa gordeko da.

Azalpen hau entzun eta eztabaidatu ondotik, Herriko Kontseiluak, aho batez:

ONARTZEN DU dokumentuak kentzeko prozedura hau.

AGINDUA EMATEN DIO herriko mediatekako arduradunari bildumak arautzeko politika aplikatzen, lehen definitu bezala.

017-A – Langileak: Bide Publikoaren Zaindari (ASVP) lanpostu ez-iraunkorra sortzea.

EZTABAIDA:

Auzapezak Herriko Kontseiluari proposatu dio bide publikoaren zaindari (ASVP) lanaldi osoko lanpostu ez-iraunkorra sortzea, bide publikoan polizia misioak egiteko.

Segurtasun eta osasungarritasun publikoaren arauen zaintza eta prebentzioan polizia judizialaren eskumenak ditu. Zaindari hau Errepide kodearen, Garraio kodearen, Ingurumen Kodearen edo Aseguruen Kodearen arau-hausteak ohartarazteaz eta isuna ezartzeaz arduratzen da. Merkatariak kokatzea eta merkatuan nola kukuso-mekatuan toki eskubideen ordainketa ere bermatzen du. Merkatariak zerrendatzea eta kokapenak esleitzea da bere lana, merkatua eta kukuso-merkatua antolatzeke eta behar bezala pasatzen direla bermatzeko. Lurzoruko publikoa okupatzeko eskubidea fakturatu eta ordainketa bildu behar ditu (merkatu batean lekua duen merkatari batek ordaindu behar du eskubide hori, adibidez).

2024ko uztailaren 1etik 2024ko abenduaren 31ra sortuko da lanpostua.

Asteko lan orduen batzuetan besteko kopurua 35 ordukoa izanen litzateke.

Lanpostu hau C kategoria hierarkikokoa da.

Lanpostua kontratupeko agente bat hartuz beteko litzateke. Funtzio Publikoaren Kode Orokorreko L.332-23 1. artikulua aplikatuz, horrek kontratupeko agente bat hartzea ahalbidetzen du, jardueraren aldi baterako lan gehigarriari erantzuteko, gehienez 12 hilabetez eta segidan 18 hilabeteko epean.

Lanpostuak 367 indize gordinari dagokion ordainsaria ukan lezake.

Gainera, 2018ko azaroaren 26ko Herriko Kontseiluaren erabakiz lurralde-teknikari laguntzaileen lanpostu funtzionarioentzat finkatu ziren sari eta kalte-ordainak ordainsarian sartuko lirateke.

Auzapezaren azalpen osagarriak entzun eta eztabaidatu ondotik, Herriko Kontseiluak, aho batez:

ERABAKI DU 2024ko uztailaren 1etik 2024ko abenduaren 31ra bide publikoa zaintzeko agente baten lanaldi osoko lanpostu ez-iraunkorra sortzea, dagokion 367 indize gordinarekin.

BAIMENA EMATEN DIO auzapezari eranskinean proposatutako lan-kontratua izenpetzeko.

ONARTZEN DITU auzapezaren proposamen guztiak.

ZEHAZTEN DU behar den kreditua aurreikusia dela urteko aurrekontuan.

017-B – Langileak: harrera eta erresebatze-agente lanpostu ez-iraunkorra sortzea.

EZTABAIDA:

Auzapezak Herriko Kontseiluari proposatu dio Harrera eta Erresebatze Arduradun lanpostu ez-iraunkor bat sortzea, denbora ez-osokoa, Arnaga Museoa telefono bidezko harrera eta erresebak kudeatzeko.

2024ko uztailaren 1etik 2024ko irailaren 15era sortuko da lanpostua.

Asteko lan orduen batz besteko kopurua 35 ordukoa izanen litzateke.

Lanpostu hau C kategoria hierarkikokoa da.

Lanpostua kontratupeko agente bat hartuz beteko litzateke. Funtzio Publikoaren Kode Orokorreko L.332-23 1. artikulua aplikatuz, horrek kontratu peko agente bat hartzea ahalbidetzen du, jardueraren aldi baterako lan gehigarriari erantzuteko, gehienez 12 hilabetez eta segidan 18 hilabeteko epean.

Lanpostuak 367 indize gordinari dagokion ordainsaria ukan lezake.

Gainera, 2018ko azaroaren 26ko Herriko Kontseiluaren erabakiz lurralde-teknikari laguntzaileen lanpostu funtzionarioentzat finkatu ziren sari eta kalte-ordainak ordainsarian sartuko lirateke.

Auzapezaren azalpen osagarriak entzun eta eztabaidatu ondotik, Herriko Kontseiluak, aho batez:

ERABAKI DU 2024ko uztailaren 1etik 2024ko irailaren 15era harrera eta erresebatze agente lanpostu ez-iraunkorra sortzea denbora ez-osoko lanaldiarekin, astean batz beste 20 lan-ordu izanen dituen, dagokion 367 indize gordinarekin.

BAIMENA EMATEN DIO auzapezari eranskinean proposatutako lan-kontratua izenpetzeko,

ONARTZEN DITU auzapezaren proposamen guztiak

ZEHAZTEN DU behar den kreditua aurreikusia dela urteko aurrekontuan.

017-C – Langileak: Ama-eskoletan Berezitu (Lurralde) Agentea (AB(L)A) lanpostu iraunkor bat sortzea.

EZTABAIDA:

Auzapezak Herriko Kontseiluari proposatu dio Ama-ikastolako Berezitu Agente lanpostu iraunkorra sortzea, lanaldi osokoa.

Lanpostu hau C kategoria hierarkikokoa da.

Lanpostuen taula gisa horretan osatuko da:

Lanpostua: Ama Eskoletan Berezitu (Lurralde) Agentea,
Gradu erlazionatuak: AB(L)A printzipala 2. klasea,
AB(L)A printzipala lehen klasea

Kategoria hierarkikoa: C

Aurrekontu-langile kopurua: 1

Asteko bataz besteko lan-denbora: denbora osoa

Lanpostu iraunkor hori bete daiteke:

- Funtzio Publikoaren Kode Orokorreko L.311-1 artikulua printzipio orokorra aplikatuz, AB(L)A lanpostu eremuko funtzionario bat kontratupean hartuz. Kode horren arabera, lege dispositiboak aurreikusitako salbuespenak salbuespen, departamenduetako, herrietako eta beraien administrazio- erakunde publikoetako lanpostu zibil iraunkorrak funtzionarioek betetzen dituzte.
- Funtzio Publikoaren Kode Orokorreko L.332-14 artikulua aplikatuz, funtzionario bat kontratatatu bitartean kontratupeko agente bat hartu daiteke aldi baterako lanpostu huts bati aurre egiteko,

Orduan, lan-kontratua gehienez urte baterako egiten da. Horren iraupena luza daiteke, gehienez bi urtera arte, funtzionario bat hartzeko kontratazio-prozedura burutzea ezinezkoa izan delarik. Kontratupeko agente bat hartuz gero, lanpostuak 368 indize gordinari dagokion ordainsaria izan lezake.

Gainera, 2018ko azaroaren 26ko Herriko Kontseiluaren erabakiz Ama Eskoletan Berezitu (Lurralde) Agente lanpostu funtzionarioentzat finkatu ziren sari eta kalte-ordainak ordainsarian sartuko lirateke.

Auzapezaren azalpen osagarriak entzun eta horri buruz eztabaidatu ondotik, Herriko Kontseiluak, aho batez:

ERABAKI DU -2024ko irailaren 1etik goiti, Ama Eskoletan Berezitu (Lurralde) Agente lanaldi osoko lanpostu iraunkorra sortzea,

- Lanpostu hori funtzionario bat edo kontratupeko agente bat hartuz bete daitekeela
- Kontratupeko agente bat hartuz gero, lanpostuak 368 indize gordinari dagokion saria izan lezake.

BAIMENA EMATEN DIO auzapezari eranskinean proposatutako lan-kontratua izenpe dezan, baldin eta kontratupeko agente bat hartzea erabaki baldin badu,

ONARTZEN DITU auzapezaren proposamen guztiak,

ZEHAZTEN DU behar den kreditua aurreikusia dela urteko aurrekontuan.

017-D – Langileak: adingabeen harrera kolektiboaren arduradun lanpostu iraunkor bat sortzea.

ERABAKIA :

Auzapezak proposatu dio Herriko Kontseiluari lanaldi osoko lanpostu iraunkorra sortzea, eskolaldi inguruko denboran eta eskolaz kanpoko denboran adingabeen harrera kolektiboaren arduradun gisa lan hauek egiteko:

- Animazio taldearekin elkarlanean haur eta gazteen harrerarako proiektu pedagogikoa idatzi;
- Proiektuen gauzatzea antolatu eta koordinatu;
- Animazio taldea kudeatu.

Lanaren asteko bataz besteko iraupena 35 ordukoa litzateke.

Lanpostu hori C edo B kategoria hierarkikokoa da.

Lanpostuen taula manera horretan osatuko da:

Lanpostua: eskolaldi inguruko denboran eta eskolaz kanpoko denboran adingabeen harrera kolektiboaren arduraduna.

Gradu asoziatuak: 2. klaseko animazio laguntzaile nagusia,
Lehen klaseko animazio laguntzaile nagusia,
Animatzailea,
2. mailako animatzaile nagusia,
Lehen mailako animatzaile nagusia.

Kategoria hierarkikoak: C edo B.

Aurrekontu-langile kopurua: 1

Asteko bataz besteko lan-denbora: denbora osoa.

Lanpostu iraunkor hori bete daiteke:

- Funtzionario bat kontratatuz, Funtzio Publikoaren Kode Orokorraren L.311-1 artikuluan ezarritako printzipio orokorra aplikatuz; printzipio horren arabera, eta legegintza-xedapen batean aurreikusitako salbuespenetan izan ezik, funtzionarioek betetzen dituzte administrazio-izaera sailtako, udalerrietako eta establezimendu publikoetako lanpostu zibil iraunkorrak;

- Funtzio Publikoaren Kode Orokorreko L.332-8 2. artikuluko xedapenak aplikatuz kontratu-agente bat kontratatuz. Xedapen horiek kontratu-agenteak lanpostu iraunkorretan hartzeko aukera ematen dute, baldin eta lan motak edo zerbitzuaren beharrek justifikatzen badute eta mugikortasunagatik edo sartzeko lehiaketako saridunen artean ezin bada funtzionariorik kontratupean hartu.

Lan-kontratua gehienez hiru urterako egiten da. Horren iraupena luza daiteke, gehienez sei urtera arte berritze azkarraren bidez. Sei urteko epe hori bukatzean kontratua luzatzen bada, erabaki azkarraren bidez eta mugarik gabekoa izanen da.

Kontratu-agente bat kontratupean hartuz gero, lanpostuak ukan ditzake:

- C kategoriako lanpostu baterako 385 indize gordinaren tratamendua
- B kategoriako lanpostu baterako 389 eta 707 arteko indize gordinaren tratamendua

Gainera, 2018ko azaroaren 26ko Herriko Kontseiluaren erabakiz lurraldeko animazio axuanten lanpostu funtzionarioentzat finkatu ziren sari eta kalte-ordainak ordainsarian sartuko lirateke.

Auzapezaren azalpen osagarriak entzun eta horri buruz eztabaidatu ondotik, Herriko Kontseiluak, aho batez:

ERABAKI DU - 2024ko irailaren 1etik goiti, lanaldi osoko lanpostu iraunkorra sortzea, eskolaldi inguruko denboran eta eskolaz kanpoko adingabeen harrerako arduradun gisa,
- Lanpostu hori funtzionario bat edo kontratu-agente bat kontratupean hartuz bete daitekeela,
- Kontratu-agente bat hartuz gero, C kategoriako lanpostu baterako 385 indize gordinari dagokion tratamendua ukan lezake, edo B kategoriako lanpostu baterako 389 eta 707 bitarteko indize gordinari dagokiona.

BAIMENA EMATEN DIO auzapezari eranskinean proposatutako lan-kontratua izenpe dezan, baldin eta kontratupeko agente bat hartzea erabaki baldin badu,

ONARTZEN DITU auzapezaren proposamen guztiak,

ZEHAZTEN DU behar den kreditua aurreikusia dela urteko aurrekontuan.

018 – Langileak: Kudeaketa Zentroa – Auzibideen arloan aholkularitza juridikoa erabiltzea.

EZTABAIDA:

Auzapezak Herriko Kontseiluari azaldu dio Kudeaketa Zentroek beren kolektibitate kideei hautuzko zerbitzuak eskain diezazkieketela, horien artean aholkularitza juridikoko eginkizunak.

Horri dagokionez, Pirinio Atlantikoetako Lurralde Funtzio Publikoaren Kudeaketa Zentroak aholkularitza juridikoa proposatzen du auzibideen arloan.

Aholkularitza juridikoa, kolektibitatearen igurikatze eta beharren mugak zehaztu eta gero, interbentzioari dagokion aurrekontuan oinarrituko da.

Kudeaketa Zentroko Administrazio Kontseiluak onartutako prezioaren arabera finkatuko da zerbitzuaren prezioa; orain arte, eguneko 750 € da (375 € egun erdiko) Kudeaketa Zentroko kideak diren tokiko elkargoentzat.

Kudeaketa Zentroak 2024ko abuztuaren 1etik goiti proposatzen duen Aholkularitza Juridikoko Hitzarmenarekin bat egitea proposatzen du.

Auzapezaren azalpen osagarriak entzun eta horri buruz eztabaidatu ondotik, Herriko Kontseiluak, aho batez:

ONARTZEN DU 2024ko abuztuaren 1etik goiti Kudeaketa Zentroak proposatzen duen aholku juridikoarekin bat egitea.

BAIMENA EMATEN DIO auzapezari eranskinean proposatutako hitzarmena izenpetzeko, bai-eta hitzarmena aplikatzeko aurrekontuak ere.

019 – Pirinio Atlantikoetako Tokiko Sozietate Publikoa (SPL): 2023 urteko txostenaren aurkezpena.

EZTABAIDA:

Auzapezak Herriko Kontseiluari jakinarazi dio, 2024ko ekainaren 4ko Pirinio Atlantikoetako Tokiko Sozietate Publikoaren (SPL) Administrazio Kontseiluak 2023 urterako jardueren txostena baliozkotu zuela.

Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L.1524-5 artikuluan xedatutakoaren arabera, “Administrazio-kontseiluko edo gainbegiratze-kontseiluko ordezkariak urtean behin, gutxienez, aurkezten dieten txosten idatziari buruz iritzia emanen dute lurralde kolektibitateetako edo *SEM*-ko akziodun elkarten organo legegileak”.

Auzapezaren azalpen osagarriak entzun eta horri buruz eztabaidatu ondotik, Herriko Kontseiluak, aho batez:

KONTUTAN HARTU DU 2023rako Pirinio Atlantikoetako Tokiko Sozietate Publikoaren (SPL) jardueren txostena.

PARTE HARTZEAK:

Auzapezak azaldu du Pirinio Atlantikoetako Tokiko Sozietate Publikoak, zeinekin Kanboko herria lanean hasi zen, bere kapitala eskualdean zabaldu duela, eta horrek lizeoekin proiektu handietan elkarlanean aritzeko aukera ematen diola. Zabalkunde horrek Tokiko Sozietate Publikoa bere eskaintza egituratzen laguntzen du, batez ere giza baliabideen arloan eta, beraz, langile kualifikatuen eskuragarritasunaren arloan.

Hastapenean, Kanboko herriak berdegune baten proiektu bat egiteko SPLarekin elkarlanean aritzea erabaki zuela oroitarazi du. Departamendu Kontseiluak ezarritako epe bati erantzunez, 2024ko azaroaren 30a baino lehen proiektuen deialdian posizionatzera behartzen baitzuen hiria. Hala ere, Departamendu Kontseilu mailako proiektuen deialdiak bertan behera utzi zituztenez, SPLarekin gai horri buruz zuten eginkizun espezifikoak bertan behera gelditu zen.

Peio Etxelekuk kontuei dagokien galdera planteatu du, kontuetan erabilgarritasun handiak daudela adierazi du, baina "beste zor batzuk" izeneko 19 milioi euroko parte bati buruz galdegin du zehazki. Zenbateko horren inguruko azalpenak galdegin ditu.

Auzapezak azaldu du parte hori elkargo garrantzitsuen ekarpenei dagokiela, batez ere Departamendu Kontseiluak egindakoei. Ekarpenei horiek progresiboki egiten direla zehaztu du, beharren arabera, erakunde horien helburua ez baita SPLerako eskugaineko diru erabilgarria hornitzea. Diru kopuru hori, beraz, diruzaintzako deiei erantzuteko egin diren funtsen aurrerakinak dira. Funtsak erabiliak edo itzuliak izan baino lehen eman diren diru kopurua dira. Kopuru horiek aurrerakinak egiten dituzten elkargoen intereserako direla azpimarratu du.

020 – L’Aiglon zinema: 2023ko ustiapen txostenaren aurkezpena.

EZTABAIDA:

Barbier-k biltzarreko kideei jakinarazi die, 2022ko uztailaren 11ko eztabaidaren bidez, Herriko Kontseiluak zerbitzu publikoa eskuordetuz zinema ustiatzeko printzipioa onartu zuela. Data hori aitzinetik ere kudeaketa mota hori erabiltzen zen.

Aitzineko ordezkaritza 2022ko abenduaren 31n bukatzen zenez, jarraikitasun horretan, zinemaren ustiapena berrartzeko gai izanen zen eragile ekonomiko bat atzemateko konkurrentzia eragiketa hasi zen.

2022ko abenduaren 21eko eztabaidaren bidez, Herriko Kontseiluak zerbitzu publikoa eskuordetuz zinemaren ustiapena bermatzeko “Xabi Garat, banakako enpresa” atxikitze hautua onartu zuen.

Kontratazio Publikoaren Kodearen L.3131-5 artikuluekin bat etorriz, kontzesionarioak urtero txosten bat egiten du, eta bertan biltzen dira besteak beste kontzesio-kontratua gauzatzearekin zerikusia duten eragiketa guztien kontuak eta lan edo zerbitzuen kalitatearen azterketa. »

Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L.1411-3 artikulua honela dio: “Kontratazio Publikoaren Kodeko L. 3131-5 artikuluan aipatzen den txostena aurkezten delarik, txosten horren azterketa hura aintzat hartzen duen biltzar erabakitzailearen datorren bilkurako gai-ordenean sartuko da »

2024ko Maiatzaren 30ean, kontzesionarioak aipatutako txostena (eranskin gisa doa) Herriko Etxera bidali zuen.

Barbierren azalpen osagarriak entzun eta eztabaidatu ondotik, Herriko Kontseiluak, aho batez, erabaki du:

KONTUTAN HARTU DU Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L.1411-3 artikulua arabera, Kanboko L’Aiglon zinemaren zerbitzu publikoaren 2023 urteko ordezkartaren ustiapenari buruzko txostena bidali izana.

PARTE HARTZEAK :

Argitxu Hiriart-Urrutyk L’Aiglon zinemaren harrera gaitasuna zein den galdegin du.

Roger Barbier-ek guti gorabehera 110 leku badirela erantzun du .

Argitxu Hiriart-Urrutyren arabera, L’Aiglon zinemak 110 leku ditu eta saio bakoitzeko 26 ikusleren batz bestekoa duela ohartarazi du. Kanbon zinema gune bat sortu nahi izan zutela oroitarazi du eta kopuru horiek kontutan harturik, horrelako proiektu baten beharrik ez dela iradoki du.

Auzapezak erantzun du L’Aiglon zineman ibiltzearen egungo zenbakiek ez dituztela nahitaez Garat familiaren itxaropen edo proiektuak erakusten; izan ere, Garat familiak Kanbon hainbat zinema-sala garatzeko interesa adierazi du. Interes hori baieztatzen bada ere, ez du erran nahi instalazio berri horiek berehala sortuko direnik edo epe laburrean eginen direnik.

Peio Etxelekuk ohar bat egin du eta azpimarratu du kultura-eskaintza, baita jatorriko zineman ere, trinkoa dela, eta egiazko kultura-behar baten premiari erantzuten diola.

021 – HeBHeS Txakurrak: 2023ko jardueren txostenaren aurkezpena.

EZTABAIDA:

Barbier-ek Herriko Kontseiluko kideei jakinarazi die, 2024ko ekainaren 24ko posta elektronikoaren bidez, HeBHeS Txakurrak taldeak 2023 urterako jardueren txostena bidali zuela (ikus erantsitako dokumentua)

Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L.5211-39 artikuluan xedatutakoaren arabera, "auzapezak bilkura publikoan Herriko Kontseiluari txosten hau jakinarazten dio, eta, bertan, herrien arteko lankidetzarako erakunde publikoaren organo deliberatzailekoak diren herriko ordezkariak entzunak dira»

HeBHeS Txakurrak taldeko herriko ordezkariaren azalpen osagarriak entzun eta horri buruz eztabaidatu ondotik, Herriko Kontseiluak aho batez erabaki du:

KONTUTAN HARTU DU HeBHeS Txakurrak taldearen 2023 urteko jardueren txostena.

022 – Hirigune Elkargoa: 2023ko jardueren txostenaren aurkezpena.

EZTABAIDA:

Auzapezak Herriko Kontseiluko kideei jakinarazi die Hirigune Elkargoak 2023ko jardueren txostena bidali duela eta bilkurako kide guztiei bidali diela posta elektronikoz.

Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L.5211-39 artikuluan xedatutakoaren arabera, "auzapezak bilkura publikoan Herriko Kontseiluari txosten hau jakinarazten dio eta bertan, herrien arteko lankidetzarako erakunde publikoaren organo deliberatzailekoak diren herriko ordezkariak entzunak dira»

Hirigune Elkargoaren 2023ko jarduera-txostenak erakundearen ekintza eta proiektuak ezagutarazten ditu, bere Lurralde Proiektuan definitutako ardatz estrategikoen arabera.

Funtsezko adierazleek politika publikoek lurraldean eta biztanleen bizi-eremuan duten eragina zehazki neurtzeko aukera ematen dute.

Hirigune Elkargoak trantsizio energetikoan, garapen jasangarrian eta klima-aldaketa egokitzean egiten dituen ahaleginen ikuspegi osoa emateko, Klima Airean Lurralde Energia Planarekin loturak ere nabarmentzen dira.

Auzapezak bere azalpen osagarriak erran eta horri buruz eztabaidatu ondotik, Herriko Kontseiluak, aho batez:

PARTE HARTZEAK:

Auzapezak Hirigune Elkargoaren 2023ko jarduera-txostena aipatu du, biziki ongi egina eta osoa dela erran du. Bertan laburbiltzen dira alor desberdinetako proiektu nagusiak, hala nola mugikortasuna, garapen ekonomikoa, trantsizio energetikoa eta ekologikoa, kultura, gizarte-kohesioa, partaidetzak eta finantzaketa:

Txosten horrek finantzari buruzko zati bat duela adierazi du, eta, bereziki, 2023ko abenduaren 31n ordaintzeke zegoen zorra zehaztu du. Zerga-tasen eta haien bilakaeraren laburpena ere ekartzen du, Hirigune Elkargoaren finantza-kudeaketaren eta lehentasunen ikuspegi orokorra eskainiz.

Beste gai batzuk.

Auzapezak azaldu du Nahi Dugun Herriaren bestelako galderari eztabaidaren harira agertu diren informazioekin lotu zaiola.

Jean-François Lacosta eta Peio Etxelekuk eginiko galderei dagokienez, epez kanpo direnak, galdera egileak Hirigune Elkargoko presidentearengana joan daitezela iradoki du. Laborantza eta beste arlotako presidenteorde arduradunekin konpromisoak eta ekintzak ere aipatu zituzten bilkura bat izan zen.

Auzapezak dio ez duela pertsonalki horri buruzko galderarik ukan, eta, beraz, interesdunak presidentearengana joatea beharrezkoa dela argibideak lortzeko.

Auzapezak Peio Etxelekuren galdera bat aipatu du, hau da: herriko azken aldizkarian gehiengoaren orrialdean errandakoari erantzuteko duen eskubidea. Zehaztu du biltzarreko eskubidea landutako gaien inguruan erabili behar dela. Hala ere, aldi honetan salbuespena egin eta azpimarratu du ez duela Herriko Kontseilua sistematikoki adierazpen politikoentzako plaza bilakatu nahi.

Auzapezak azpimarratu du salbuespen hori ez dela etorkizunean araua izanen. Peio Etxelekuri hitza eman dio.

Peio Etxelekuk eskerrak eman dizkio, eta aski luzea izanen dela abisatu du. Irakurriko duen testu bat prestatu duela zehaztu du.

Auzapezak erantzun du hitzartze horren laburpena baizik ezin litekeela aktan sartu.

Peio Etxeleku:

“Joan den apirilaren 16an, asteartez, zuekin elkartasunez, ene lankide agurgarriak, herri honek antolatzen zuen manifestaziora joan nintzelarik, Kanboar batek, apirilaren 10eko Herriko Kontseiluan gertatutakoa eta ondorioak deskribatzeko irudi bat erabili zuen.

Erran zidan, behatzaileak behatz puntaz ilargia erakusten duelarik, ikuspegi orokorra duenak ilargia begiratzen duela, eta, ikuspegi partzialarekin asetzen denak, aldiz, behatzailearen behatza begiratzen duela. Egoera laburbiltzeko modu aski trebea iruditu zitzaidan.

Bakantzetan nintzela, Herriko Etxeko gehiengoa nire pertsona ttikian hain fokalizatua zela ohartu nintzelarik, kanboar horren esaldia itzuli zitzaidan gogora.

Orrialde oso bat nire eginkizunei buruz idatzia zen, baina baita naizenaz eta ustez nire pertsonalitateaz ere. Guzti hori kanboarren diruarekin egiten den eta ausarki zabaltzen zaien herriko

aldizkarian. Ez zait euskarri horretan kontra argumentatzeko aukerarik eskaini, eta, horrek, duda batzuk tarteko, Herriko Kontseilu honetan hitza hatzera narama, erantzuteko eskubidearen izenean preseski.

Lintxamendu mediatiko honi merezi duena baino garrantzi handiagoa emateko zalantza ukan dut, baina han egiten diren erasoen bortiztasunak, aitzinekorik gabeko irain-kanpaina baten ondorio denak, erantzunik gabe ez uztera eraman nau.

Lehenik, irudi suntsiketa hau zergatik abiatu den aztertuko dut. Gero, puntuz puntu, zekenkeri eta kontra-egiei erantzunen diet, nire inguruan hartu diren erabakien basakeria justifikatzeko ustezko froga sorta biltzeko asmoz testua betetzera datozenak. Azkenik, garrantzitsuena delako, dosierren mamiaz mintzatuko naiz. Herriaren bizitza eta bere proiektuak aurkezteko lekua den herriko aldizkarian orrialde oso bat hautetsi baten kontra idaztea, osoki kontrakoa, gauza biziki bitxia da, Kanbon behintzat lehen aldia da.

Erasoa hain gogorra iruditu zaidanez, nire lehen erreakzioa iparra pixka bat galdua zenutela pentsatzea izan da. Difamazio tonalitate horrek, frogak eta bidezidor semantikoak metatzeko gogo horrekin batera, Kanbon gertatu diren manifestazio guztien sustatzailea naizenaren inpresioa utzi nahi dio irakurleari. Ez naiz psikologian aditua, baina tonalitatearen gehiegikeriak eta zure hitzen edukiak, erabaki neurrigabe bat edozein preziotan justifikatzeko balio dutela pentsarazten dute. Komunitate Kontseiluan egin nuen hitzartzearen ondotik bere erantzun ezari buruz galdegin ziotelarik Hirigune Elkargoko presidenteorde ospetsu batek erran zuen bezala, “ez ditugu gure presidentearen ergelkeri guztiak justifikatuko”. Garai horretan, alde guztien babes, ulermen eta justifikazio mezu frango errezibitu ditut: hautetsi anitz, noski, baita batzorde eragileko kideak, gure herriko hautetsiak eta lurraldeko eragile anitzenak ere; gure herriaren edota gure elkargoaren funtzionamenduan zerbait gaizki doala ikusten dutenak, eta hautu librea duten ahots independenteak beharrezkoak direla konturatzen direnak, interes orokorra defendatzeko eta gure osasun demokratikoaren bizitasuna bermatzeko.

Orain, eta aski aspergarri izanen da, testu horretan metatuak diren datuak zehazki aztertu eta beraien lekuan ezarriko ditut. Horien metaketaren helburua justifika ezina justifikagarri bilakatzea da. Gure Euskal elkargo berriaren historian izan den zigor handiena eta modu autoritario eta antidemokratikoenean gauzatua.

Lehenik gehiengoaren zerrendarekiko nire urruntze progresiboa aipatzen duzue. Jean François eta biok, publikoki, gehiengo honetatik ateratzea erabaki badugu, zure eskakizuna betetzeko da, Christian. Oroitarazi behar dut, zure bulegora deitu eta eraikuntza proiektu horien kontra azaltzen segituz gero, ez genuela zuekin deus egitekorik erran zenigula, hortik zure hitzen ondorioak atera ditugu. Besterik ez.

Oposizioko kide bati ahalordea eman izanaren istorio honi buruz hitz batzuk. Diputatu hautatua izateko zorian izan zinen eta legegile izan zitekeen gizon bati hori errateak tristetzen nau. Ahalordea emateak ez du norberaren botereak txeke zuri baten maneran ematea erran nahi. Nire kasuan, ahalordea ematearekin batera bozka-manuak ematen ditut, eta ez dira bortxaz nire ordezkari bozkatuko duenaren berdinak. apirilaren 10ari dagokionez, zilegi bekit oroitaraztea Kontseilu hau bigarren aldiz lurralde-poloaren bilkura batekin batera antolatu zenutela, horrek bilkuraren hastapenean egotea eragotzi zidan. Bilkurara etorriko nintzela uste nuen, batez ere udal urteko gairik garrantzitsuena aipatuko zelako: aurrekontuaren bozketa. Familia eta azken orduko arrazoiengatik ezin izan nuen parte hartu.

Bigarrenik, gure Kontseiluan ez da kategoria desberdinetako hautetsirik. Kanboarrek hautatu gaituzte denak. Zertan da apalgarria ahalordea oposizioan den hautetsi bati ematea?

Auzapezen gehiengoak galdegin duen nire kanporatzeari dagokionez, zehaztu behar dut sei herri horietako ordezkariak ez dutela lurralde batzordearen gehiengoa osatzen. Sei herri horiek herri kopuruaren %54a badira ere, batzordeko bozka-emaileen %45a dira. Eta ez ditut kontuan hartzen

herri horietako hainbat kidek nire kanporatzearen printzipioari buruz edota erabilitako metodoari buruz adierazi dituzten kontrako ikuspegiak, bereziki Jatsu, Zuraide, Luhusoko auzapezaren axuantak eta Kanboko herriko bi ordezkariak. Inguruabar larrigarri gisa, sei auzapez horietatik hiruk ez dute sekula gure lurralde batzordearen lanetan parte hartzen.

Orain nire ustezko akrobazia semantikoetaz eta elkarrizketa anitzetaz mintza gaitezen. Elkarrizketak ez ziren hori bezain ugariak izan, prentsurreko bakar bat eman bainuen, Jean-François Lacostarekin prestatu genuen testu bat irakurri; nire izenean egiten nuela ongi zehaztuz eta ez lurralde poloaren erreferente gisa. Hori da orduan errandakoa.

“Gertatutakoak sortzen dituen galderetara itzuli aitzin, legezkotasunaren errespetuari sakonki lotzen den alderdi bateko lurralde-lehendakari gisa, printzipio hauek ere oroitu nahi ditut. Herriko Kontseilua eremu sakratua da eta herritar guztiek parte hartu ahal izatea funtsezkoa da, baina isilik eta iritzirik adierazi gabe, edozein maneretan ere. Printzipio hori eztabaida demokratikoaren lasaitasunaren eta kalitatearen bermatzaileetako bat da.

Bigarrenik, pertsona edo hautetsiei eginiko hitzezko mehatxu edo mehatxu fisiko oro kondenatu behar dira. Arrats hura eraso gisa bizi eta batez ere psikologikoki sufritu zuten nire lankide hautetsientzat pentsamendu adiskidetsua eta errukia ere badut eta egiazko elkartasuna. Auzapezari dagokionez, ostegunean goizean goiz ahots eta idatzi mezu bat bidali nion. Herri Kontseiluan Laborarien manifestazioa bulkada batean eta Kanboko auzapezaren erorketarekin bukatzea deitoragarria da. Denbora eta konpromiso handia ematen duten hautetsiek sostengua eta errespetua merezi dituzte.

Hala ere, nire sinesteen bidetik eta elkarrizketa bare baten baldintzak laguntzeko obsesioa baitut, ez dut Laborariak-ek egin duen ekintza sindikal, zaratatsu eta ikusgarriari buruz gaitzespen hitza erabiliko, nahiz giro itogarrian igaro zen dudarik gabe. »

Sud-Ouest Dimanche egunkarian argitaratu ziren zure hitzen harira, nire prentsurrekoaren bezperan zuhaurek egin zenuen elkarrizketan lasaigarria iruditu zitzaidan tonua baliatuz mintzatu nintzen, amalgamarik ez zela egin behar azpimarratu nuen eta egoera bareago batetara itzultzeko gure borondatean hitzen hautuak axola zuela, alde desberdinen arteko elkarrizketa berreskuratzearen alde eginez.

Beren lanabesa suntsitua ikusten duten laborari horiei sistematikoki ate hertsu bat parean ezartzea kexa sakona sortzen duen mespretxu sentimendu bat sortzea da, ez da batere lasaigarria denak gorantza ateratzeko aterabide baten atzemateko. Hori da pentsatu nuena.

Testuan, beti, sei auzapezek nire berehalako kanporatzea lortzeko hautatu zuten prozedurari buruzko azalpen bat bada. Maiatzaren 4an, larunbatez, niretzat biziki zaila zen egitarauan bilkura bat izan zen. Bilkura horren bukaeran, bilkuran ez zeuden auzapezekin elkartu nahi nuela adierazi nuen, haien iritzia entzuteko. Eta, prentsurrekoan adierazi nuen bezala, lurraldeko erreferente gisa dudan misioaren betekizuna ekainaren bukaeran aurreikusia zen lurralde-batzordearen bilkuran erabaki zitekeela, gure urteko ibilbide-orria idazteko lana bukatzeko asmoz. Hilabete bat lehenago prentsan egin nuen adierazpena aipatuko dut, ez naiz postu horri lotu: “nire iritzia lurralde poloko hautetsi batzuk nire erreferente funtzioaren zilegitasuna zalantzan ezartzera eramaten baditu datozen egunetan, beste behin ere, errespetatzen eta ulertzen ditut, eta, zalantzarik gabe konfiantzazko bozka baten menpe ezarriko nintzateke”.

Ondoko aste hastapenetik nire kontrako gutun bat zebilela jakin dut, eta Lehendakariaren bulegoa ere izenpedurak lortzeko azpijokoan ari dela. Operazio hori norainoko jukutria izan den ageri da, eta dadoak nola faltsutuak.

Gainera, ondoko asteen, zailtasun handiko momentu pertsonal bat baliatuz, bi aterean artean nire berehalako kanporatzearen berri eman zitzaidan, izurriduna banintz bezala, nire misioarekin segitzeak jendetza arriskuan ezarriko balu bezala.

Erabaki horren basakeriak, lurralde batzordean kontsulta egitea zatekeen formen paralelismoa ez betetzeak, bat baino gehiago harritu du.

Gero nire ustezko desleialtasunari buruzko paragrafo bat dator, hartu nuen jarrerak erakusten omen zuena. Hala ere, nire solaskide guztiekin hastapenetik gardena eta garbia izan nintzela uste dut. Besteak beste, "gaitzespen" hitzak baretze baldintzetatik urruntzen gintuela azalduz eta bitartekaritza beharrezkoa zela azpimarratuz. Eta hori, momentu horretan zenbatezinak diren presio ukaiten nituen bitartean.

Beste paragrafo bat, espantuzkoa arrunt, EAJrekin dudak konpromisoari buruzkoa da. Ez dut ikusten konpromiso horrek nire hautetsi egitekoan zer nahasmen eragin dezakeen. Konpromiso horren existentziari buruz gardena izan naiz beti, orain dela 26 urtekoa da. 2020ko kanpainan aurkeztutako prentsaurrekoan EAJko hautagai guztien artean zinen, eta Herriko Kontseilu honetan nire konpromiso politikoarekin bat dator.

Azkenik, mintza gaitzezen ustez kendu didazun konfiantzaz. Irriño bat loratu zitzaidan. Egiazki, ez duzu sekulan nigan konfiantzarik ukan. Ez duzu kasik nehorrenganako konfiantzarik, zure gehiengoko hautetsi anitzek, ardura baten edo bestearen kargu direnak, deitoratu dute «lehenik egin eta gero aipatu» manera hori. Ez naiz sekulan axuanten bilkuretarik gomitatua izan. Tokiko Hirigintza Plana aldatzeko eta Bouygues etxe agentziari emandako lehen baimena a posteriori neurrien arabera izateko maniobren berri Batzorde Eragile baten erdian izan nuen. Momentu horretan gehiengoaren kide nintzen. Konfiantzaz lan egin izan bagenu, hain kontu garrantzitsuen berri ukan beharko nukeen.

Zintzoki penatua naiz politikaren zilo beltzenetara jaustera behartua izan izanaz, baina aterako naiz eta dosierra horien mamiaz mintzatuko natzaizue azkenean.

Joan den apirilaren 11ko, hau da, biharamuneko elkartruke bilkura famatu horren bukaeran bertan ziren auzapezekin aipatu genuen bezala, Etchegaray lehendakariak laborantza munduko ordezkariekin biltzea onartu zuen. FDSEA eta ELB sindikatuetaordezkariekin, laborantza eta elikaduraz arduratzen den lehendakariordearen eta hiri antolaketaaren ardura duen Errobi poloaren auzapez gorenaren lehendakariordearen presentzian.

Laborantza sindikatuetaordezkarietariko bat Kanboko laborantzarako ordezkari ohia zen, Jean-François Lacosta gure lankidea.

Pozten naiz lohi zilo honetatik eta oraindik zangozabatzen zaituzten eta gauzak gehiago minduko dituen egoera honengatik goitik ateratzeko lehen saiakera horretaz. Dakidanez, eztabaida luzea izan zen, kasik bi ordu iraun zuen, eta alde guztien argumentuak entzun ziren. "Etchegaray lehendakaria zurekin harremanetan sartu behar zen".

Horrela aritzeak penatzen nau, baina ikasi dezagun. Gaiak hain minberak direlarik politika horrela egin behar da, kiratsa darien proiektu anbiguenen kontra herritar multzo garrantzitsuak mobilizatzen direlarik.

Hautetsiaren handitasuna proiektu batzuk gelditzea izan daiteke. Horregatik, Marienia eta Usimendiari buruzko luzamendu eskaera berretsi dugu, elkarriketaren baldintzak berrezartzeko eta konponbideak atzemateko.

Baimenak eman diren arren, promotore interesdunak ez dira sekulan herriko etxe batekin solasteko uzkur, ongi baitakite, bi proiektu horietatik haratago, etorkizuneko proiektuak egiteko herriko etxe batekiko harremanaren kalitatea ezinbesteko baldintza dela.

Azken urteotan hartutako erabakien legezkotasunaren eta proiektu horien aldeko lehen erabaki judizialen indarraren gibelean babestu zarete.

Ikuspegi eroso da, protestari halako erradikaltasun zilegigaitzaren kutsua ematen diona. Hala ere, oroitarazi behar dut legezko erabaki bat ez dela nahitaez zilegi eta zuzena. Nahiz eta legezkotasuna errespetatzearen aldekoa naizen sutuki eta denen arauen errespetatzea guztion eskubideen errespetuaren lehen bermea izan, desobedientzia ekintzen bidez ere aitzinamendu sozialak lortu dira: abortua, homosexualen arteko ezkontza, etab. Deusek ezin du eta ez du indarkeria justifikatu behar. Horrez gain kondenatua izan behar du. Baina manifestatzeko eskubidea, elkarriketarako eskubidea eta bitartekaritzarako eskubidea ere errespetatu behar dira.

Ez naiz gehiengoaren hitz horietan deskribatua den gizona. Eta zuen talde osoaren izenean egin baitzen, nigan nolako zauria eragin zuen entzun ezazue. Zuetako anitzek nire giza bertuteak preziatzen dituzuela pentsatzeko ahultasuna dut gaur ere, gai bati edo beste bati buruz ukan ditzakegun desadostasunak desadostasun. Milesker.”

Auzapezak zehaztu du, onartu duen erantzun-eskubidea denez, ez duela gai hori eztabaidatuko. Bukatzeko, azpimarratu du Peio Etxelekuren oharrek ez dutela deusetan bere uste sendoa aldatzen, baizik-eta, azken horren ekintza eta adierazpenek herriko gehiengoa eta Errobi poloko auzapezekiko duten "erabateko desleialtasuna" berresten dutela .

22:20an, auzapezak Herriko Kontseiluaren bilkura bukatutzat eman du.

Hautetsiei tauletak ematen zaizkie.

Jean Paul EYHERACHAR
Bilkurako Idazkaria

Christian DEVEZE
Kanboko auzapeza